



***ARAZOETAN OINARRITUTAKO
IRAKASKUNTZAREN ETA TALDE
LANAREN ARTEKO FUSIOA:
PERTSONAREN ZUZENBIDEA IKASTEKO
PROPOSAMENA***



AURKIBIDEA

I. Ongi etorriak Zuzenbide Gradura: <i>Non gaude?</i>	(1. orr)
II. Irakasgaiaren aurkezpen-txostena: <i>Zer ikasiko dugu?</i>	(8. orr)
1. Sarrera	(8. orr)
2. Programa	(9. orr)
3. Programaren azterketa atalez atal	(14. orr)
4. Eskuratu beharreko gaitasun espezifikoak	(15. orr)
5. Ikasleak eskuratu beharreko helburuak	(16. orr)
III. Irakaskuntza-metodologia: <i>Nola ikasiko dugu?</i>	(17. orr)
1. Hausnarketa orokorra	(17. orr)
2. Irakaskuntza-metodologia aktiboa	(20. orr)
a. Subjektu protagonistak	(20. orr)
b. Ikasketa-prozesuaren objektua	(22. orr)
c. Planifikazioa: kronograma	(24. orr)
d. Jarraikako ebaluazio sistema	(25. orr)
IV. Irakasgaiaren planifikazio zehatza atalez atal: <i>Zer eta nola ikasiko dugun jakinik, nola antolatuko dugu, zehazki, gure ikasgaiaren martxa?</i>	(28. orr)
1. Diseinu osoaren aurkezpena	(28. orr)
2. Irakaslea	(29. orr)
3. Ikasleak	(33. orr)
4. Ikasketa-prozesua: dimentsioa eta egitura	(34. orr)
5. Akordioa	(54. orr)
6. Aurreko urteetako balorazioa	(55. orr)
7. Aurrettest	(57. orr)
V. Eranskinak: <i>Gure proposamenaren isla grafikoa</i>	(58. orr)





ONGI ETORRIAK ZUZENBIDE GRADURA

Non gaude?

EHUko Zuzenbide Fakultateko Bizkaiko Atalean gaude, 1997an Leioako Campusean sortu zen ikastegian. Jada hamabost dira, beraz, ikastegi honetatik ateratako promozioak.

Fakultatean goi mailako unibertsitate ikasketak egiteko aukera eskaintzen da. Gure zentroak ospe handia du Zuzenbide eta Kriminologia arloetan. Gure eskaintza akademikoa erabatekoa eta gaur egungoa da, eta guztiz egokituta dago Europako Unibertsitate Eremura. Ikasleak lanbide juridikoetan aritzeko eraginkortasunez prestatzen ditugu. Irakasteko metodologiak, **irakaskuntza teoriko sendo bat ez ezik, prestakuntza praktikoa ere barne hartzen du**, unibertsitate guneetan, bulego profesionaletan, enpresetan eta erakunde publikoetan. Horren guztiaren ondorioz, goi mailako prestakuntza hartzen dute ikasleek; gogor lan egin eta ikasi behar dute, baina arrakasta tasa profesionala ere handia dute. Irakaskuntza eskaintzaren egitura osatzeko, **hainbat hitzarmen ditugu Espainiako eta atzerriko unibertsitateekin**. Horiei esker, ikasleek ikasketen zati bat Europako eta Amerikako unibertsitateetan egin dezakete, ikasle trukeko programen bidez (Sicue, Erasmus, Latinoamerika eta Beste Norakoak).

Fakultatea 200 bat langilek osatzen dugu: 163 irakasle eta ikertzailek (horietatik 90 bat Leioan ere aritzen direnak) eta 30 administrazio eta zerbitzuetako langilek (horietatik 8 bat Leioan kokatuak). Honako hau da Fakultatearen barne-egitura:

✚ **Dekanotza taldea**: Talde hau da Fakultatearen egunerokoa gidatzeaz arduratzen da [Donostian kokatuak: Dekanoa; Kalitate eta Ikasketa Berrikuntza Dekanordea; Akademia Antolakuntza, Irakasle eta Lanen Dekanordea; Ikasle eta Euskara Dekanordea eta Administrazio Zerbitzua. Leioan kokatuak: Bizkaiko Ataleko Dekanordea; Irakaskuntza, Berrikuntza eta Ikasleen Dekanorde Exekutiboa eta Administrazio Zerbitzua].

✚ **Zuzenbide Fakultate Batzarra**: Fakultate Batzarra ikastetxearen gobernu- eta administrazio-organo gorena da, eta Dekanoak, Dekanordeek, Idazkariak, Administrazioaileak eta





kide hautetsiek osatzen dute. Batzarraren kide hautetsi hauek, unibertsitateko taldeek, beraien kideen artetik, sufragio unibertsal bidez hautatuak izaten dira, kopuru-banaketa honen arabera: Irakasle Katedradun eta Titularrak: 24 kide; Irakasle Kontratatuak: 9 kide; Ikasleak: 10 kide; A.Z.P.: 6 kide. Kide guzti horietatik, 9 bat dira Leioako Ataleko Batzarra osatzen dutenak. Bilkurak publikoak dira eta horietan Fakultateari zein Bizkaiko Atalari zehazki dagozkion gaiak jorratzen dira, hurrenez hurren.

✚ **Batzordeak:** Fakultatean esparru edo arlo zehatzak lantzen dituzten talde teknikoak dira: Euskara Batzordea; Kultur eta Kirol Ihardunetarako Batzordea; Antolakuntza Akademikorako Batzordea; Kalitate Batzordea; Berdintasun Batzordea eta Auto-babeserako Batzordea.

✚ **Sailak:** Gure langileen portzentaje handiena sailetan banatua dago. Hamahiru dira sailok:

- Administrazio Zuzenbidea, Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia
- Zuzenbide Zibila
- Konstituzio Zuzenbidea eta Pentsamendu Politikoaren Historia
- Estatuko Zuzenbide Eliztarra eta Zuzenbide Erromatarra
- Enpresaren Zuzenbidea
- Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia
- Zuzenbide Publikoa
- Euskal Filologia
- Ekonomia Aplikatua I
- Soziologia
- Oinarrizko Prozesu psikologikoak eta euren garapena
- Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Garapena
- Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia

Ikasle Kontseilua ere badago, Leioan zein Donostian. Ikasleen Unibertsitateko ordezkari-organoa da hau, bere helburu orokorretan parte hartzen duena, bai eta ikasleentzako harrera eta informazio-zerbitzuen eskaintzari atxikitako gestioan ere. Ikasleen Kontseiluaren lana ikasleek unibertsitate-bizitzan parte hartzeko duten interesean oinarritzen da.





Ikasleen Kontseiluaren eginkizunak hauexek dira: ikasleen ordezkaritza izatea Unibertsitatearen gainerako organoen aurrean; UPV/EHUko ikasleen eskubideak betetzen direla zaindu eta eskatzea; urteroko jardute-plana burutu eta programatzea; euskararen erabilera bultzatzea ikasleen ordezkaritza-organismoetan; bere aurrekontua administratu eta gestionatzea, eta Unibertsitate-elkarteen eraketa bultzatzea.

Bai Donostian bai Leioan, Zuzenbide Fakultateko **instalazio eta baliabide multzoak** kalitate handiko irakaskuntza bermatzen du. Irakaskuntza talde txikitan egiten da eta metodologia berri bategan oinarrituta, mintegiak eta ikasgelako praktikak funtsezkoak izanik metodologia horretan. Halaber, ikastegian informatika eta multimedia instalazioak daude, ezinbestekoak informazio iturri guztietarako sarbide zuzena ematen duen irakaskuntza eguneratua eskaintzeko. Batzar aretoak, jateko gela, bideokonferentzia ekipoa eta bestelako instalazioek bermatzen dute gure eguneroko jarduna.

Informazio panelak daude ikastegian zehar. Halaber, Fakultateko zein Leioako Ataleko **WEB ORRIAK** dira ikasleen informazio iturri oparoenetarikoa. Bertan aurki ditzakezue, besteak beste, egutegiari eta ordutegiari buruzko informazio eguneratua, baita langileen telefono luzapenei zein tutoretza ordutegiari dagokiona. Ikasleei zuen ikasketei dagokion **araudia** ere eskaintzen zaizue bertan. Aipagarriena:

- ❖ Unibertsitateko Ikasleen Estatutua
- ❖ Gradu Ikasketarako Iraunkortasun Arautegia
- ❖ Gradu eta Lehenengo zein Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako Arautegia
- ❖ Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari Buruzko Arautegia
- ❖ Zuzenbide Fakultatearen Erregelamendua
- ❖ Azterketen eta Birbegiratzeko erregimena

Zuzenbide Fakultateko Bizkaiko Atalean badira ere, Donostian bezala, kurtso ezberdinetako **KOORDINATZAILEAK**, arazorik izanez gero haiengana jotzea baduzuelarik:

1. Kurtsoa: Esperanza Osaba García
2. Kurtsoa: Jon Landa Gorostiza
3. Kurtsoa: Leire Imaz Zubiaur
4. Kurtsoa: Alberto Saiz Garitaonaindia





Halaber, badugu gure sarean Graduak dakartzan **IRTEERA PROFESIONALEI** buruzko informazioa.

ENPLEGU PUBLIKOA

- Epailletza
- Fiskaltza
- Estatuko Abokatua
- Erregistradorea
- Funtzionario Publikoa

MENPEKOTASUNIK GABEKO PROFESIONALAK

- Notarioa
- Abokatua
- Aholkularia
- Prokuradorea

ENPLEGU PRIBATUA

- | | |
|---------------------|------------------|
| -Enpresa abokatua | -Bitartekaritza |
| -GKE-k | -Irakaskuntza |
| -Bankuak | -Ikerkuntza |
| -Alderdi politikoak | -Legeetan aditua |
| -Adiskidetzea | -Sindikatuak |
| -Aseguruak | |

Ikasten jarraitu nahiez gero, badituzue Graduondokoak eta Masterrak ere. Horien inguruko informazioa eskuragai duzue behar duzueneko. **LANBILA** eta **UNIBERTSITATEKO ENPLEGU GUNEAK** ere zuen eskura dituzue, lan bila zabilzatenontzat. Bekak, sariak, lehiaketak eta diru laguntzak webgunean agertzen zaizkizuela jakitzazue. Baita graduan zehar burutu ditzakezuen eta burutu beharko dituzuen **PRAKTIKEI** buruzko nondik norakoak.

Edozelan ere, orain hasi berri duzuen **GRADUARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRAREN** ikusmira eta **LEHENENGO MAILARI DAGOKION INFORMAZIO ZEHATZA ETA EZINBESTEKOA** eskaintzen zaizue segidan.

[Graduaren egitura orokorra](#)





Ikasketa-plana, hain zuzen, lau modulutan eta lau urtetan banatua dago. Urte bakoitza bi lauhilekotan banatzen da, eta kredituak honela bereizten dira:

<i>Irakasgai mota</i>	<i>1. maila</i>	<i>2. maila</i>	<i>3. maila</i>	<i>4. maila</i>
Oinarrizko kredituak	60	6	---	---
Nahitaezko kredituak	---	54	60	24
Kanpo-praktikak	---	---	---	12
Gradu amaierako lana	---	---	---	6
Hautazko kredituak	---	---	---	18
Guztira	60	60	60	60

Graduko 240 kredituak gainditzeko, ikasleek eskaintzen diren irakasgaien ezagutza izan behar dute eta graduko gaitasun orokorrak eta bereziak lortu behar dituzte. **Europako kredituak dira proposatzen direnak. ECTS kredituak deitzen diegu.** Ikasketa planean ezarritako helburuak lortzeko ikaslearen ikaskuntza-eremua eta lan-bolumena islatzen duen neurri-unitatea da, eta aintzat hartzen ditu, gainera, ikasleak ikasteko duen gogoia eta ahalegina. Hala, ECTS 1 = ikaslearen 25 lan ordu (eskola-orduak, eskola teorikoak edo praktikoak eta zuzenekoak ez diren jarduerak). Zuzenekoa den irakaskuntzari dagokionez, ECTS 1 = zuzeneko irakaskuntzako 10 ordu.

Ikasketa-planeko egiturari **lau modulu** daude:

- 1) **Zuzenbidearen Oinarriak** moduluan, 1. mailako oinarrizko irakasgai edo irakasgai orokor guztiak biltzen dira.
- 2) **Zuzenbide Publiko Orokorra eta Berezia** moduluan, Zuzenbideko arlo horrekin lotutako nahitaezko irakasgaiak biltzen dira.
- 3) **Zuzenbide Pribatua moduluak** ere Zuzenbide Pribatuaren edo positiboaren arloko nahitaezko irakasgaiak hartzen ditu bere baitan.
- 4) Azkeneko moduluak, **Zuzenbide Espezializazioa, Ikerketa eta Jardunak** alegia, nahitaezko irakasgaiak, gradu amaierako lana (ikerketa), kanpo-praktikak eta hautazko irakasgaiak biltzen ditu, eta ikasleek tituluko lehengo moduluetakoko gaitasun orokorrak eta bereziak izango dituzte. Azkenik, nola gradu amaierako lanari, hala nahitaezko kanpo-praktikei esker, tituluan aurreikusitako gaitasun guztiak eskuratu ahal izango dira.





Zuzenbideko moduluei lotutako zuzenekoak ez diren lanen artean, honako hauek daude, ikasleok konpromisoz bete beharrekoak:

- Irakaspen teorikoaren aurretik, gaiak irakurtzea.
- Irakasleak ikasgai bakoitzerako emandako edo gomendatutako irakaskuntza-materiala aztertzea.
- Material osagarria irakurtzea (liburutegikoa, erreprografia zerbitzukoa, *ekasi* edo *moodle* plataformetako / irakasleek emandakoa).
- Praktikak prestatzea eta egitea (kasu praktikoak, testuen iruzkinak, eztabaidak, lanak...).
- Tresna informatikoen bitartez, datuak eta informazio juridikoa bilatzea.
- Azken proba prestatzea.

Lehenengo maila

Aurten honako ikasgaiak izango dituzue, lau hilabetekoetan eta kreditutan zehaztuak:

Lehenengo lauhilabetekoa:

- ✓ Ekonomia (6 kreditu ECTS)
- ✓ Zuzenbide zibila (6 kreditu ECTS)
- ✓ Konstituzio Zuzenbidea I (6 kreditu ECTS)
- ✓ Erromatar Zuzenbidea (6 kreditu ECTS)
- ✓ Zuzenbidearen Historia (6 kreditu ECTS)

Bigarren lauhilabetekoa:

- ✓ Administrazio Zuzenbidea I (6 kreditu ECTS)
- ✓ Europar Batasuneko Zuzenbidea (9 kreditu ECTS)
- ✓ Konstituzio Zuzenbidea II (7 kreditu ECTS)
- ✓ Zuzenbidearen Teoria (8 kreditu ECTS)


Bukatzeko, ikus ditzagun lehenengo mailari edota moduluari dagozkion **GAITASUNAK**, hots, ikasleak, lehenengo kurtso hau bukatutakoan, egoera jakin bati aurre egiteko lortu beharreko oinarritzko trebetasunak:





1. Zuzenbidearen garrantzia, hain zuzen, bilakaera historikoaren (erromatarren ordenamendutik gaur egunekora arte) gizarte-harremanak arautzeko sistema gisa ulertzea.
2. Oinarritzko eskubideak, konstituzioko eta Europako oinarriak eta balioak erabiltzen jakitea, ordenamendu juridikoa interpretatzeko gida gisa.
3. Ekonomia-zientziaren oinarritzko teoriak eta tresnak ezagutzea, ekonomia-gertakizunak ezagutu, eta zuzenbidearen alorrean aplikatzen jakiteko.
4. Ordenamendu juridikoaren izaera bateratuta hautematea, eta arazo juridikoen diziplina arteko ikuspegia garatzea.
5. Gizarteko metodo, kontzeptu eta teoriak eraginkortasunez ezagutzea eta erabiltzea; era horretan, zuzenbide pribatutik (pertsonek), bioetikatik eta ondare-zuzenbidetik eratorritako hainbat hipotesiri aplikatu ahal izango zaizkie, tolerantziarekin eta giza eskubideen errespetuarekin bat datorren jarrerarekin.
6. Erakunde publiko eta pribatu nagusien jatorria eta osotasuna ezagutzea eta ulertzea.
7. Zuzenbidea aplikatzearekin lotutako arazoak konpontzeko gaitasuna izatea.
8. Oinarritzko informatika ezagutzea, tresna informatzaile nagusiak erabiltzea eta IKTak ondo erabiltzea.
9. Oinarritzko eskubideak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta gutxiengoak errespetatzea.
10. Jaioterriko hizkuntzan ahoz eta idatziz komunikatzea.
11. Analisisirako, sintesirako eta azalpenerako gaitasuna izatea.
12. Modu autonomoan lan egiteko gaitasuna izatea.

Ongi etorria eta kokatze orokorra eskainita, hurrengo atalean lehenengo moduluan kokatzen den lehenengo mailako lehenengo lauhilabetekoan jorratuko duzuen **ZUZENBIDE ZIBILA I** irakasgaia aztertuko dugu.



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho


IRAKASGAIAREN AURKEZPEN-TXOSTENA

Zer ikasiko dugu?

1. SARRERA

Zuzenbide zibila I (Sarrera eta Pertsonaren zuzenbidea), lehenengo mailako lehenengo lauhilabetekoan jorratzen den irakasgaia da. Irakasgai honek, 2010eko Ikasketa Planari jarraiki, 6 kreditu dauzka. Plan horren arabera, 6 kreditu horietatik 4.2 teorikoak dira eta 1.8 praktikoak. Kredituak ordu bilakatuz, segidan aurkezten zaizuen taulan islatzen den bezala, ikasleak irakasgai honetan, 60 ordu emango ditu aurrez-aurreko eskoletan eta 90 ordu eskoletatik kanpoko lanetan.

Irakaskuntza mota	Teorikoa	Mintegia	Gelan praktikak	Laborategian praktikak	Ordenagailuan praktikak	Tailerra	GUZTIRA
Aurrez-aurreko eskola orduak	42		18				60 [50 IKASLE GUTXI GORA BEHERA]
Ikasleak eskoletatik kanpo bete beharreko lan-orduak	63		27				90 [50 IKASLE GUTXI GORA BEHERA]





Astero, beraz, irakaskuntza motari eta ordui dagokionez, **honako banaketa hau** ezartzen du Ikasketa Planak:

IRAKASKUNTZA MOTA	AURREZ-AURREKO ORDUAK	ESKOLETATIK KANPO ORDUAK	GUZTIRA 14 ASTETAN
Teorikoa	3	4.5	105
Gelan praktikak	1.3	1.9	45
Guztira	4.3	6.4	150

2. PROGRAMA

Zuzenbide zibila I irakasgaiak 12 gai barnebiltzen ditu, hiru bloketan banatuak. Hona hemen programaren aurkezpena:

LEHENENGO ATALA: ZUZENBIDE ZIBILA. SARRERA

1. GAIA: “Zuzenbide zibilaren kontzeptua”

I. Zuzenbide zibila ordenamendu juridiko pribatuan

1. Zuzenbide Zibila, kontzeptu historiko
2. Espainiako Kode Zibila
3. Zuzenbide zibila gaur egun
4. 1978ko Konstituzioaren eragina
5. Zuzenbide pribatuaren eta publikoaren arteko bereizketa
6. Zuzenbide Zibila, Zuzenbide pribatu orokor
7. Zuzenbide Zibila osatzen duten erakunde nagusiak

II. Espainiar estatuko ordenamendu zibila

1. Kodegintza zibila: eranskinak eta konpilazioak
2. Kodegintza prozesuaren esanahia eta printzipioak
3. Espainiako kodegintza
4. Foru-zuzenbideen eboluzioa: eranskinak eta konpilazioak
5. Estatuko eta autonomia-erkidegoetako Zuzenbide zibilak
6. Auzotasun zibila

III. Zuzenbide zibilaren iturriak

1. Kode Zibilaren 1. artikulua, oro har
2. Legea
3. Ohitura eta usadio juridikoak





4. Zuzenbidearen printzipio orokorrak
5. Jurisprudentzia

2. GAIA: “Arau zibilen interpretazioa, aplikazioa eta eraginkortasuna”

I. Arau zibilen interpretazioa

1. Kontzeptua eta motak
2. interpretazio judizialaren helburua
3. kode zibilaren interpretazio-irizpideak

II. Arau zibilen aplikazioa

1. ekitatea
2. analogia

III. Arau zibilen eraginkortasuna

1. Arau zibilek denboran zehar duten eraginkortasuna
 - a. Arauen publikazioa
 - b. Indarreratzea
 - c. Indarra galtzea
 - d. Xedapen iragankorrak
 - e. Atzeraeraginerako debekua
2. Arau juridikoen eraginkortasun orokorra
 - a. Ordenamenduarekiko lotura
 - b. Legea ez ezagutzea
 - c. Zuzenbidezko errakuntza
 - d. Lege aplikagarria baztertzea
 - e. Arauen kontrako egintzak: lege-maula

BIGARREN ATALA: ESKUBIDE SUBJEKTIBOA

3. GAIA: “Harreman juridikoa eta eskubide subjektiboa”

I. Harreman juridikoa

II. Eskubide subjektiboa

1. Kontzeptua, ezaugarriak eta egitura
2. Dinamika
 1. Jaiotzea eta eskuratzea
 2. Besterentzea
 3. Aldatzea
 4. Iraungitzea eta galtzea
 - a. Uko egitea
 - b. Denbora. preskripzioa eta kaduzidatea
3. Eskubidearen egikaritzea
 1. Kontzeptua eta betekizunak
 2. Eremua eta mugak
 - a. Eskubidea fede onez egikaritzea
 - b. Eskubide abusua edo gehiegikeria
4. Eskubideen objektua: ondasunak eta ondarea



4. GAIA: “Pertsonaren zuzenbide eremupeko eskubide subjektiboak: nortasunaren eskubideak”

I. Nortasunaren eskubideak

1. Kontzeptua eta izaera
2. Ezaugarriak

II. Alor moraleko nortasun eskubideak

1. Izenarekiko eskubidea
2. Ohorearekiko, pertsona eta familiaren intimitatearekiko eta norbere irudiarekiko eskubidea
3. Zuzenketa eskubidea
4. Intimitatearen babesa, datu pertsonalen bilketa eta trataera informatikoaren aurka

III. Alor fisikoko nortasun eskubideak

1. Bizitzeko eskubidea
2. Osotasun fisikorako eskubidea

HIRUGARREN ATALA: PERTSONA

5. GAIA: “Pertsona”

I. Pertsona eskubideen subjektu. pertsona motak

II. Gaitasuna

1. Gaitasun juridikoa
2. Jarduteko gaitasuna
3. Debekuak

III. Nortasuna noiz hasten den. Jaiotza

1. Sarrera
2. Jaiotzaren legezko betekizunak
3. Jaiotze unea
4. Erditze anitzak
5. Jaiotze froga

IV. Jaiotzeko dagoenaren babes juridikoa

1. Jaiotzekoaren babes zibilaren zergatia
2. Babesaren izaera juridikoa
3. Babes eremua
4. Babesaren kontsolidazioa

V. Sortzekoa

VI. Nortasunaren amaiera. Heriotza

1. Esanahi juridikoa
2. Heriotza unea
3. Heriotza froga

VII. Aurretik hiltzea eta aldi berean hiltzea

6. GAIA: “Pertsonaren egoerak. egoera horiek erregistroan jasotzea”

I. Egoera zibila



1. Egoera zibilak historian zehar izan duen esanahia
 2. Egoera zibilak gure zuzenbidean
 3. Egoera zibilaren erregimen juridikoa
- II. *Sexua edo generoa. Transexualitatearen arazoa eta eraentza juridikoa*
- III. *Erregistro Zibila*
1. Kontzeptua, aurrekinak eta indarrean dagoen erregimena
 2. Izaera eta edukia
 3. Antolamendu-printzipioak
 4. Egitura
 5. Egitate inskribagarriak
 6. Idazpenak
 7. Erregistro-prozedura
 8. Erregistro-publizitatea

7. GAIA: “Adina”

- I. *Adina: garrantzia juridikoa*
- II. *Adin-txikitasuna*
1. Adin-txikiaren egoera juridikoa
 2. Adin-txikiaren gaitasuna
 3. Adin-txikiaren erantzukizuna
- III. *Burujabetzea edo emantzipazioa*
1. Gurasoek emandako burujabetasuna
 2. Epaileak emandako burujabetasuna
 3. Ezkontza bidezko burujabetasuna
 4. Burujabetzearen efektuak
- IV. *Bizitza independentea daraman adin-txikia*
- V. *Adin-nagusitasuna*

8. GAIA: “Ezgaitzea eta gaitasuna mugatzea”

- I. *Desgaitzea*
1. Kontzeptua eta esanahia
 2. Arrazoiak. Gaixotasun eta gabeziak
 3. Desgaituak izan daitezkeen pertsonak
- II. *Desgaitze prozedura*
1. Hasiera
 2. Izapidetzea
 3. Epaia erietuak
 4. Desgaitua erietxean barneratzea
- III. *Zarrasteltasunagatik mugatutako gaitasuna*
- IV. *Konkurtsatuaren eta kebratuaren egoera juridikoa*

9. GAIA: “Babeserako erakundeak (I). Guraso boterea”

- I. *Guraso boterea: kontzeptua eta ezaugarriak*
- II. *Edukia*
1. Orokorki
 2. Pertsonaren ikuspegitik



3. Seme-alabak ordezkatzeta
4. Ondarearen ikuspegitik

III. *Egikaritzea*

1. Elkarrekin bizi diren gurasoak
2. Banandurik bizi diren gurasoak

IV. *Etetea, kentzea eta iraungitzea*

1. Etetea
2. Kentzea
3. Iraungitzea

V. *Guraso boterea luzatzea eta berrematea*

10. GAIA: “Babeserako erakundeak (II)”

I. *Pertsonaren zaintzarako eta babeserako erakundeak*

1. Sistema eta motak
2. Izaera eta ezaugarriak
3. Xedapen komunak

II. *Tutoretza*

1. Kontzeptua. Onuradunak eta tutoretza eskatzera behartuak
2. Tutoretzaren delazioa eta tutorea izendatzea
3. Tutoretzaren edukia eta egikaritzea
4. Iraungipena eta kontu ematea

III. *Kuradoretza*

1. Kontzeptua, kuratelapekoak eta kuradoreak
2. Motak eta edukia

IV. *Zaintza erakunde gehiago*

1. Defendatzaile judiziala
2. Egitatezko zaintza

V. *Adin-txikiak babesteko beste modu batzuk*

1. Beste modu horien zergatia
2. Tutoretza automatikoa
3. Zaintza administratiboa
4. Familiatzko urgazpena edo harrera

11. GAIA: “Pertsonaren kokagunea”

I. *Bizilekua*

1. Kontzeptua eta esanahi juridikoa
2. Motak

II. *Absentzia: azalpen orokorra*

III. *Desagertuaren defentsa*

1. Betekizunak
2. Defendatzailearen izendapena; betebeharrak eta zereginak
3. Desagerpen egoeraren amaiera eta desagertuaren defentsaren iraungipena

IV. *Legezko absentzia*

1. Kontzeptua
2. Aurreuposamenduak
3. Absentearen ordezkariak
4. Absentearen egoera juridikoa



5. Legezko absentziaren amaiera

V. *Heriotza deklarazioa*

1. Kontzeptua
2. Suposamenduak
3. Efektuak
4. Heriotza deklarazioa bertan behera geratzea

12. GAIA: “Pertsona juridikoa”

I. *Pertsona juridikoa orokorrean*

1. Pertsona juridikoaren kontzeptua
2. Nortasun gehiegikeria edo abusua
3. Pertsona juridiko motak

II. *Kode zibileko araudia*

III. *Elkartea*

1. Kontzeptua eta ezaugarriak
2. Indarrean dagoen legeria
3. Elkarte motak
4. Elkartearen egitura
5. Elkarteen eraketa
6. Elkartearen antolaketa
7. Elkartekide izatea

IV. *Fundazioa*

1. Kontzeptua
2. Indarrean dagoen legeria
3. Egitura
4. Fundazioen eraketa
5. Fundazioen erregimen

3. PROGRAMAREN AZTERKETA OROKORRA ATALEZ ATAL

Lauhilabeteko honetan jorratuko dugun irakasgaiaren programa hiru zatitan banatzen dela ikusi dezakezue. Hiru zatiak ezberdinak dira baina konektatuak daude. Taxu progresiboa dauka: ikasleak pixkanaka eskuratzen ditu ezagupenak eta gaitasunak. Plano orokor batetik plano zehatzera jaisten doa gaien hurrenkera. Ikasleak, hala, badu ikusmira orokor bat hasieratik eta, gerora, arlo zehatzetan murgiltzen da legedia eta bestelako euskarri didaktikoak erabiltzen ikasten duen bitartean.

Aipatu **bloke edo zatien azalpen orokor bat** eskainiko dugu jarraian:

- 1) **Lehenengo atala: Zuzenbide zibila. Sarrera.** Hasierako bloke honi dagokio Zuzenbide zibila zer den azaltzea. Zuzenbide publikoa eta Zuzenbide pribatua bereiztea eta Zuzenbide zibila Zuzenbide pribatuaren eremuan kokatzea. Zuzenbide zibilak barnebiltzen dituen





gaiak eta erakundeak azaltzea eta ezaugarri orokorrak barneratzea. Lan hau burutu ostean, Espainiako Estatuan Zuzenbide zibil bat baino gehiago dagoela ikasten dugu. Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. artikulua aztertu eta, doktrina eta jurisprudentziaren laguntzaz, foru-zuzenbideen kontzeptua azaltzen dugu, egungo Zuzenbide zibil autonomikoen figurara heldu arte. Oso gai interesgarria eta polita da. Ikasleek interesa erakusten dute eta euskarri didaktikoek (aurrerago ikusiko dugun bezala) asko laguntzen dute lan hau egoki burutzen. Ordenamendu zibil aniztasun hau tratatu eta gero, Zuzenbide zibilaren oinarritzko gaiak lantzen ditugu: iturriak, arauen indarreratzea, efikazia, lege-maulari, deuseztasuna... Ikasleak testu eta ariketa praktikoei esker aise menderatzen dituzten eremuak, alegia.

- 2) **Bigarren atala: Eskubide subjektiboa.** Atal honetan ikaslearentzat abstraktuagoa den eremu bat jorratzen da. Eskubide subjektiboaren muina aztertzen da, beste figura antzekoetatik bereiziz, gerora bere dinamikan murgiltzeko. Zer da eskubide subjektiboa? Adibideak jarritz ikasleak ulertu egiten du eskubide honen forma eta edukia. Nola eskuratzen ditugu eskubideak? Nola galtzen ditugu? Uko egin diezaiekegu gure eskubideoi? Mugarik ba al dago uko egiteko? Zer dira preskripzioa eta kaduzitatea: gure eskubideak denboran zehar erabiltzen ez baditugu galdu ditzakegu? Edozein modutan egikaritu ditzakegu gure eskubideok? Zer da fede ona eta zer eskubide abusua? Oso isla praktikoa duen gaia da eta erabiliko ditugun euskarri didaktikoek asko erraztuko dute kontzeptuok barneratzea eta, hala, ikasleek lehenengo kurtsorako aurreikusten diren gaitasunak aise eskuratzea.
- 3) **Hirugarren atala: Pertsonaren zuzenbidea.** Atal hau da, ziur asko, ikasleak gehien gozatzen duena. Batez ere, eremu abstraktuetatik igaro eta gero eskuratzen duen ikusmiraz baliatuz, arlo zehatzagoak ulertu eta barneratzeko gaitasuna handiagoa duelako. Eremu honetan pertsona fisikoaren jaiotza, adina, gaitasun juridikoa, jarduteko gaitasuna, emantzipazioa, ezgaitzea, guraso ahala, tutoretza eta legezko absentsia lantzen ditugu. Baita pertsona juridikoaren legezko zirrikituak ere, elkartea eta fundazioa aukeratuz azterketa zorrotzagoa egiteko asmoz. Gure gizartean gizaki orori aplikagarri zaizkion aspektuak denak. Oso praktikoa eta ulerterrazak. Ikasleek asko disfrutatu egiten dute, batez ere irakasgai honetarako planteatzen den irakaskuntza-metodologia aktiboaren bertuteak aintzat hartuz.



4. IRAKASGAI HAU JORRRATUZ IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK

Moduluak edo kurtsoak berezko eskuratu beharreko gaitasunak dauzkan bezala (graduak berak ere badauzka), gure ikasgaiak badauzka ikasleak lauhilabeteko bukaeran lortu beharreko gaitasun espezifikoak. Hauexek dira, GAUR plataforman ere eskegita dauzkazuenak:

G1: Irakasgaiari dagozkion oinarrizko kontzeptuak identifikatu eta barneratzea, kontzeptuok haien artean ezberdinduz eta erlazionatuz.

G2: Indarrean dagoen araudia aurkitu, ulertu eta erabiltzea, irizpide kritiko eta orekatuarekin kasu zehatzari aplikatzeko .

G3: Irakasgaiari dagokion oinarrizko jurisprudentzia eta bibliografia topatzen jakitea, kasuz kasu beharrezkoa dena sintetizatuz.

G4: Irakasgaia osatzen duten aspektu ezberdinak barnebiltzen dituzten kasu praktikoak arrakastaz ebatzea, kasu bakoitzean proposatzen den konponbidea koherentziaz argudiatuz.

G5: Ideiak, argudioak eta konponbideak era argian eta egokian azaltzea, ahoz zein idatziz, terminologia juridikoa behar bezala erabiliz.

G6: Ikasketa kooperatiboaren ereduan parte hartzeko gaitasuna eta jarrera dinamikoa erakustea.

5. IRAKASGAIA JORRRATUZ LORTU NAHI DIREN IKASKETA-HELBURUAK

H1.-Garrantzi juridikoa duten suposamenduak identifikatzea.

H2.-Kasu zehatzari aplikagarri zaion araudia aukeratu, ulertu eta erabiltzea.

H3.-Irakasgaiari dagokion oinarrizko jurisprudentzia eta bibliografia aurkitzen jakitea.

H4.-Irakasgaian jorratzen diren kontzeptu juridikoak ezagutzea eta egoki erabiltzea.

H5.-Kasu zehatza ebatzeko orduan aukera ezberdinak aztertzea, argudiatzea eta, hauetatik, konponbide zuzenena aurkitzea.



H6.-Lanak argitasunez azaltzea, ahoz zein idatziz, eta terminologia juridikoa egoki erabiliz.

H7.-Talde-lanean parte hartzea, jarrera dinamikoa eta positiboa erakutsiz.

IRAKASKUNTZA-METODOLOGIA

Nola ikasiko dugu?

1. HAUSNARKETA OROKORRA: IRAKASKUNTZA-PROZESU AKTIBOA, DINAMIKOA ETA PARTE HARTZAILEA.

Zer ikasteak baino garrantzi gehiago du, finean, ikasteko metodologiak. Ikasteko erak baldintzatzen du, gehienetan, ikasten dena ondo barneratzea eta barneratutakoak denboran irmotasunez irautea. Irakaskuntza eraginkorra izateak berebiziko garrantzia dauka. Horregatik, irakasgai honetan metodologia ez da oinarrituko irakasleak aurkezten eta azaltzen dituen eduki teorikoetan. Ikaslearen jarrera pasiboak ez dio on egiten irakaskuntza-prozesuari. **Ikasleak bere ikasketa-ibilbidearen protagonista behar du izan.** Ikasleak, finean, jarrera aktiboa eta positiboa erakustea ezinbestekoa da irakaskuntza-prozesu dinamiko batean. Ikasleak ikasten du. Irakasleak ibilbidea eta nondik norakoak marrazten ditu. Irakaslea ez da ikaslearen ikaskuntza-iturri bakarra, ezta garrantzitsuena ere. Ikaslea da progresiboki gaitasunak eskuratzen dituen, bere erritmo eta ñabardurekin. Irakasleak lastoak ekarri eta ikasleak otzara egiten du, bakoitzak bere tamaina eta formarekin.





Europako Irakaskuntza Eremuaren erronka handienetako bat da, dudarik gabe, irakaskuntza-metodologiaren eraldaketa. Ikaslea bere testuinguru sozial, politiko eta ekonomikora gehiago hurbiltzeko berebizikoa da, adituen ustetan, zer ikasten den ez ezik nola ikasten den. Horregatik, irakaskuntza-metodologia aktiboa izango da gure lauhilabeteko honen ibilbidea gidatuko duen iparrorratza. Hala, **Problemetan Oinarritutako Irakaskuntza** sustatuko dugu: ikasleak zuzendutako eta eraikitako irakaskuntza-prozesua, alegia. Metodologia hau Amerikako EEBBetan eta Kanadan (Case Western Reserve eta McMaster Unibertsitateetako Medikuntza Fakultateetan) sortu zen, 60. hamarkadan. Gaur egun, Europako eta Ameriketako hainbat unibertsitateetan arrakasta handiz erabiltzen den metodologiaren mamia gure egingo dugu.

Metodologia aktibo honek irakaskuntza-prozesu tradizionala hankaz gora jartzen du. Ikasleari ez zaizkio euskarri teorikoak ematen hasieratik. Guztiz kontrakoa. Ikasleari gaur eguneko gizartean suertatzen diren arazoak planteatzen zaizkio, berak hausnartu, ikertu eta bere kabuz soluziobideak aurki ditzan. Gure irakasgaia aproposa da helburu hori aurrera eramateko, estuki lotuta baitago gizaki orok egunero bizi dituen egoeretara. Ikaslea da bere irakaskuntza-ibilbidea kudeatzen duena. Bera da protagonista, bidean aurkitzen dituen arazoak gainditzeko baliabideak aurkitzen dioana. Gaitasunak progresiboki eskuratzen dira eta ikaslea bere prozesuaz erabat jakitun da, momentu oro. Berak kudeatzen du bere bidea, autonomia eta heldutasuna ardatz. Erantzukizuna dauka ikasleak, bere buruarekiko, taldearekiko eta irakaslearekiko. Erantzukizunak heldutasuna dakar, konpromisoa ezinbestekoa suertatzen baita metodologia honetan.

Konpromiso eta heldutasun hori areagotzeko, erantzukizuna handitzeko, **TALDE-LANA** da metodologia aktibo honen ardatz eta oinarri. Ikasleak lauhilabetekoaren hasieratik lan-taldetan banatuak daude. Taldeak osatu egiten dira eskoletan zein eskola kanpoko lanetan elkarrekin aritzeko. Talde bakoitzak bozeramale bat izango du eta taldeak berak barne-araudi bat osatuko du, lauhilabetekoaren garapenari dagokion atalean azalduko dugun bezala. Taldean lan egiteak irakaskuntza-prozesua arindu, sendotu eta aberasten duela frogatua dago jada. Ikasleek haien ikaskideekin arazoak konpontzen ikasten dute, elkartasunaren balioa areagotzen. Norbanakoaren papera definitzen da eta taldean lan egiten ikasten dute, gaur egun eremu profesionalean asko balioesten den nolakotasuna, alegia. Talde txikiek talde handiarekin (osoko bilkurarekin) konpromisoa hartzen dute. Gogor lan egin behar dute eta, nolabait, besteen aurrean biluztu. Ahozko aurkezpenekin indartzen da funtzio hau eta talde-lanak ebaluazio sisteman





duen garrantziak ibilbidea borobiltzen du. Ezagupenen eta gaitasunen lorpena taldean egiteak arrakasta areagotzen du, dudarik gabe. Ikasleen arteko harremana estutzen du eta, nola ez, kontraesanak ere gehitzen ditu. Arazoak sortzen ditu eta horiek ere konpondu behar dituzte, irakasgaiak harago.

Metodologia hau praktikan jartzearen argazkia hau litzateke, beraz:

1. **Terminologia eta hiztegia argitu:** Klasean arazoa edo problema irakurtzen dugu guztion artean. Irakurri ondoren, ikasleak ezagutzen ez dituen hitzak aurkitu eta euren esanahia argitu behar dugu guztion artean, zentzu teknikoa eta logikoa uztartuz. Ikasleak konpondu behar duen arazoa ulertu egin behar du, bere nondik norakoak argi izan behar ditu. Ulertzen ez dena ezin da barneratu. Ulermen ariketa kolektibo hau oso garrantzitsua da irakaskuntza-prozesuaren baitan. Klasean klima ona sortzen ere laguntzen du, konfiantzazko eremu bat eraikiz, guztion laguntzaz.

2. **Problema definitu:** Terminologia argituta eta ulertuta, banakakoek eta taldeek argi izan behar dute konpondu beharreko arazoa zein den. Ez bakarrik hiztegiari dagokionez, edukia eta norabidea barneratzen dituen ulermen ariketa da orain fase honen mamia. Arazoaren muina topatu behar dute ikasleek, liskarra eta interes gatazkaren iturria, alegia. Nork dauka arazoa, zein arazo du eta nondik nora doaz konponbideak.

3. **Brain storming:** Lehenengo talde txikietan eta gero osoko bilkuran, ikasleek arazoak sorrarazten dizkien ideiak, zalantzak eta intuizioak plazaratzen dituzte. Askatu egiten dira, konfiantza irabazten dute, beldurra galtzen doaz apurka. Talde txikiaren eta osoko bilkuraren arteko kohesioa areagotzen da, nahiz eta batzuetan lehiaketa taxua agertu. Hori ere bada egungo gizartearen ezaugarrietariko bat eta hor murgiltzen dira nahigabe. Aspektu hauek zuzentzea izaten da erronka guztiontzat. Izpiritu kritikoa sortu ikaslearengan baina, aldi berean, beste ikaskideekiko errespetuzko jarrera piztea.

4. **Ideiak antolatzea:** Terminologia argitu ondoren eta lehenengo flashak bota ostean, taldeek aurreko faseetan ateratako oinarrizko ideiak antolatu behar dituzte. Haientzat garrantzitsua dena detektatu eta ordenatu. Eskolatik kanpo ikertu behar dutena argitu eta bidea marraztu, alegia. Prozesu hau kolektiboa da, banakotasunetik hasita. Norberak taldean bere pisua dauka, bere rola. Izateko erari eta jarrerari erreparatuta nahigabe sortzen dira posizio hartze horiek. Aldatzen joan daitezke denborarekin, baina, funtsean, fideltasunez mantentzen dira.



5. **Ikasketa-helburuak definitzea:** Pausu honek berebiziko garrantzia dauka gure ibilbidean. Taldekideak euren helburuak adostu behar dituzte. Zer ikertuko duten eta nondik hasiko diren. Zer behar duten argi izan behar dute denok. Lana nola banatuko duten eta elkarrekin nola moldatuko diren. Adostasuna funtsezkoa da etapa honetan. Adostasunik ez badago hori da lortu beharreko lehenengo erronka, zaila benetan. Hori da gaitasunak eskuratzeko bide nekeza eta oparoa.

6. **Norberak informazioa bilatzea:** Taldekide bakoitzak bere kabuz hasten du lanean adostutako lana. Informazio iturriak ikertzen ikasi beharko du ikasle bakoitzak, gero lortutakoa taldean landu eta aurkezteko. Iturriak kontsultatuko dituzte bakarka gerora taldean eztabaida egiteko eta soluziobideak adosteko. Talde lanarekin batera, beraz, banakako lana sustatzen da. Arriskutsua baita norbanakoa taldean diluitzea. Taldeak garrantzia dauka baina norbanakoak ere. Horrela ikasle bakoitzak gaitasunak eskuratu dituela bermatuko da.

7. **Problema klasean biraztertzea eta argitzea:** Talde txikiek egindako lanak osoko bilkuran aurkezten dira. Arazoari beste buelta bat ematen zaio, orain sakonago eta zehatzago. Ikasleak prest datoz egin dutena azaltzeko eta beste taldeek landu dutena ezagutzeko. Berebizikoa da, beraz, feedback hori sustatzea. Ikasleak bere lana besteek egindakoarekin kontrastatu eta neurtzea. Horrela bakoitzak badaki zenbat egin duen eta talde handiaren maila non kokatzen den, hortik aurrera posizioak aldatuz. Planteatutako problemak, orain, beste dimentsio bat eskuratzen du nahitaez.

8. **Emaitzak aurkeztea:** Talde txikiek euren emaitzak txosten idatzi batean aurkeztuko dute talde handian eta irakasleari entregatu, honek ebaluatu dezan. Txosten idatzia ahoz aurkeztuko dute, Zuzenbidearen eremuan hain garrantzitsua den ahozko komunikazioaren gaitasuna neurtuz eta areagotuz. Irakasleak astero ebaluatuko du talde txikien lana eta taldeei jakinaraziko die asterik atera. Horrela taldeak bere ibilbidea hobetzeko eta sakontzeko aukera izango du.

2. IRAKASUNTZA-METODOLOGIA AKTIBOA ZUZENBIDE ZIBILA I IRAKASGAIAN: OINARRIZKO ARDATZAK

Irakaskuntza-prozesuari buruzko hausnarketa orokorra egina, orain hura gure irakasgaira nola egokitzen den azaltzea dagokigu, aplikazio horren oinarrizko ardatzak plazaratuz.





Subjektu protagonistak

Gure ibilbidearen protagonistak edo gidariak lau planotan banatuko ditugu, bakoitzak bere funtzioa baitu prozesuan. Hala ere, lau planoak elkar konektatuak daude halaberrez, zatietan dira prozesuaren arrakastari begira. Barne kohesioa beharrezkoa da, beraz, lau eremuen artean. Komunikazio eraginkorra sorrarazteak berebiziko garrantzia du ibilbide honetan.

Aipatu lau planook hauexek dira:

- Ikaslea
- Talde txikia
- Talde handia
- Irakaslea

Ikaslea da funtsezko unitatea gure ekuazioan. Ikasle bakoitzak banakako emaitza lortuko baitu lauhilabetekoaren bukaeran. Ikaslea da Zuzenbide Gradua burutzen duena, ikaslea da Fakultateak aintzat hartzen duen figura ebaluatua izateko. Norbanakoa, beraz, erabat garrantzitsua da gure prozesuan. Klasea, bai talde txikia bai talde handia, ikaslez osatua dago. Ikaslerik gabe, norbanakorik gabe, talderik ez. Klaserik ez. Prozesurik ez, orduan. Gaitasunak eta ikasketa-helburuak ikasleak lortu eta eskuratu behar ditu, bai modulukoak (kurtsokoak) bai irakasgai bakoitzak marraztuta dauzkan espezifikoak ere. Ikaslea da ikasten duena, bere ikasketa-prozesua kudeatzen duen subjektu aktiboa. Ikaslea da taldean integratzen dena eta, finean, eskolak eta eskola kanpoko lanak sostengatzen dituena. Banakako ikusmira hau ezin baztertu daiteke.

Talde txikia, berriz, 4-5 ikaslez osatutako konfiantzazko gunea da. Eskoletan eta eskolatik kanpoko lanetan jardungo duen gunea, hain zuzen ere. Astero entregatu beharko dizkiote lanak irakasleari eta talde handian aurkeztu, gainera. Eskolatik kanpo bildu egin beharko dira eta eurek adostutako lan dinamika bat eratu eta mantendu. Taldea ebaluatua izango da eta azken emaitzaren portzentaje bat taldeak lortutako emaitzak osatuko du. Taldekideen arteko harmonia, kohesioa eta komunikazioa berebiziko elementuak izango dira. Taldeak erantzukizun propioa izango du talde handiaren eta irakaslearen aurrean.

Talde handia, berriz, ikasle guztien baturak eta irakasleak osatuko dute. Bertan jorratuko dira irakasleak proposatutako dinamika batzuk baita talde txikien aurkezpenak ere. Bertan eztabaidatuko dira programari dagozkion





eremu guztiak, baita talde txikiek lortutako emaitzak. Bertan talde txikien nolakotasuna adieraziko da, baita norbanakoen jarrera. Komunean jarriko dira ideiak, zalantzak, emaitzak eta galderak. Bertan talde txikiak neurtuko dira bestetik. Irakasleak taldeak eta norbanakoak ebaluatzeko izango duen eszenatokia izango da, konfiantza eta errespetu giroa sustatuz. Izpiritu kritikoa bultzatuko da baina izaera eraikitzaileak gidatua. Dena izango da kuestionagarri eta dena eztabaidagai. Adostasun kolektiboak bertan emango dira baita prozesuaren nondik norakoaren inguruko zalantzen argitzea. Asanblada izango da. Batzar gorena.

Azkenik, **irakaslea** dago. Irakasleak prozesua gidatu eta errazten du, ikasleek eta talde txikiek euren ibilbidea samurragoa izateko. Ikasleak zirikatu ditu, dantzan jarriko ditu. Irakasleak euskarri didaktikoak eskainiko ditu, dinamikak proposatu ditu eta ikasleen zein taldeen lana aztertu eta ebaluatuko ditu, aurretik adostutako sistemari jarraiki. Irakasleak tutoretza kolektiboak eskainiko dizkie talde txikiei, baita norbanakoei ere. Ikasle eta irakasleen arteko komunikazio arina eta malgua ahalbidetuko du. Talde handiarekin hartutako konpromisoak betetzeko jarrera erakutsiko du eta astero ikasle-taldee euren lanaren emaitzaren inguruko oharrak emango dizkie, hobetu daitezkeen eremuak azpimarratuz. Ikasleen arazo partikular eta kolektiboak tratatzeko joera erakutsiko du, konfiantza eta errespetu giroan. Baina irakasleak ez du bermatuko norberak emaitza ona lortzea. Hori ikasleen esku dago, norbanakoen eta talde txikien esku. Plano ezberdinen arteko *feedback*-a izango da hemen elementu klabea.

Ikasketa-prozesuaren objektua

Orain arte esan bezala, ikasleak joratu beharreko ibilbideak badu ikasketa-objektu bat. Programan aurreikusten diren gaiak lantzearekin batera modulurako eta irakasgairako marrazten diren gaitasunak eta ikasketa helburuak eskuratzea lauhilabeteko bukaeran. Hori guztia lortzeko, beraz, elementu anitzen batura emanen da prozesu honetan:



- Irakasgaiaren programa
- Euskarri didaktikoak
- Talde txikien lana
- Talde handiaren jarduna
- Norbanakoaren lana

Elementu guzti hauen batura harmonikoak dakar prozesuaren arrakasta, subjektu protagonisten jardunak bermatua, jakina! Nabarmena, da, gainera,






elementu guzti horien arteko lotura. Ikus dezagun. Irakasgaiaren programa ikasleak eskura dauka gida honetan, klaseen lehenengo sesiotik hasita. Ikasleak hasieratik daki zer ikasiko dugun eta gai bakoitzak zer barnebiltzen duen. Gaien ordena ere ezagutzen du; bloke ezberdinen egituratzea eta edukia; zer motatako eremuak jorratzen diren eta euren arteko harremana. Ikasleak badu ibilbidearen bizkarrezurra. Ezagupen sorta horiek garatzeko berebiziko garrantzia dute, nola ez, euskarri didaktikoek. Programan aurreikusten diren gaiak eta, horien bidez, eskuratu beharreko gaitasunak zein ikasketa-helburuak lortzea ahalbidetuko duten material eta dinamika sorta. Gure irakasgaiaren plangintza zehatza jorratuko dugun atalean marraztuko ditugu sakonago. Euskarri didaktikoek emango digute informazioa, problemen planteamendua eta soluziobideak plazaratzeko aukera. Euskarri didaktikoek oinarrituko dute gure ibilbidea, gaitasunak eta helburuak eskuratzeko ikusmiraz. Ariketak, praktikak, testu-iruzkinak, legak, epaiak, doktrina. Programa eta euskarri didaktikoak talde txikiak lotzen ditu. Talde txikiek jorratu beharko dute programa euskarri didaktikoen bidez, moduluarekin eta kurtsoarekin zuzenki itsatsita dauden gaitasunak eskuratzeko bidean. Hori da azken helburua, izatez, ez programa bera edo bertan aurreikusten diren ezagupen sorta. Talde txikiak izango dira ibilbidearen motorra. Talde handia, berriz, motor horri gasolina jarriko dion gunea. Bertan talde txikiek jada jorratuta ekarriko dituzten euskarriak komunean jarri, eztabaidatu eta adostuko dira. Talde txikiek euren lanaren isla jasoko dute, euren maila neurtuko dute. Norbanakoak ere. Norbanakoen aurkezpenak ikusi ahal izango ditugu. Norbera biluztuko baita, behin gutxienez, talde handiaren aurrean. Aurkezpen hori ebaluatua izango da eta talde handiaren iradokizunak eta ñabardurak jasoko ditu. Sistema borobila da, beraz. Osoa eta koherentea. Gaitasunak eskuratzeko helburu hartuta praktikan lotzen dira, kohesio handiz, plano ezberdinak.



**IRAKASGAIREN ETA
MODULUAREN
GAITASUNAK**



IKASKETA-HELBURUAK

Planifika





Ikasketa-prozesuan parte hartuko duten subjektuak eta ikasketa-prozesuaren objektua planifikazio egoki batean uztartzen dira. Hamalau asteko lauhilabetekoak ez du denbora lar ematen gure ibilbidea beharrezkoa genukeen lasaitasunarekin egiteko. Denbora urria da eta ondo antolatze beharra dago. Gai andana, euskarri didaktiko ugari eta lan mordoa egin beharra dago, baina, beti ere, ondo antolatua. Bestela eskasa gera daiteke gure prozesua, hasieran sakona eta bukaeran xumeegia. Gaien eta euskarrien arteko oreka bilatu behar da, eskoletan eta eskoletatik kanpo egin beharreko lanen arteko harmonia, alegia.

Horregatik, irakasleak **KRONOGRAMA** bat eskainiko du kurtso hasieratik. Astero egin beharreko lanen ordena azaltzen duena; ikasleen banakako aurkezpenak antolatzen dituena; banakako frogen datak ezartzen dituena; lanak entregatzeko epeak eta ebaluazioak jakinarazteko datak argitasunez finkatzen dituena. Honek ziurtasuna emango die ikasleei: une oro jakingo dute zer egin behar den eta noizko. Aldez aurretik datu horiek ezagutzeak denbora antolatzen du; egin beharrak gaiekin lotzen ditu eta ikasleek astia dute euren beharrak duten denborarekin uztartzeko.

Kronogramak lauhilabetekoaren aste guztiak jasotzen ditu, aste bakoitzeko eskola orduak finkatuz. Aste bakoitzean jorratuko diren gaiak zeintzuk diren azpimarratzen du, jai egunak kontuan hartuta. Hala ere, ulertu beharra dago irakasleak baduela zilegitasuna malgutasunez kronograma beharrezkoa denean moldatzeko. Batzuetan ikasketa-prozesuak zenbait puntutan gehiago gelditzea eskatzen du, taldearen arabera. Talde guztiak ez dira berdinak eta hori kontuan hartu beharra dago. Arazoak sorrarazten dituzten puntuetan sakondu behar denean agian kronograma mugitu egitea da komenigarriena. Maiz zenbait eremuk eztabaida eragiten dute eta hori oso positiboa izanik, denbora tarte luzeagoa eskaini behar zaie haiei. Horregatik, batzuetan eskola gehigarri batzuk ere planteatu daitezke, taldeak eta irakasleak hala adosten dutenean, batez ere lauhilabetekoaren bukaeran. Askotan merezi du ordu gehigarri batzuk ematea ibilbidea ondo bukatzeko, erdizka utzi beharrean. Normalean ez da arazorik egoten, ikasleek ere nahiago izaten baitute prozesua ondo finkatzea eskolen laguntzarekin eskoletatik kanpo egindako lanarekin baino. Ziurtasuna ematen dute eskolek eta irakaslearen presentziak. Hori normala izaten da, lehenengo mailako ikasle berrien kasuan batez ere.

Ebaluazio sistema: jarraikako ebaluaketaren aldeko apustua





Zalantzarik gabe hau izaten da ikasleei gehien interesatzen zaien eremua. Nola ebaluatuko diren euren lanak, zein izango den azken emaitza finkatzeko sistema. Irakaskuntza-metodologian paradigma aldaketa bultzatzeak ebaluazio sisteman eraldaketa eragitea dakar, dudarik gabe. Metodologia progresibo bat planteatzen badugu, iraunkorra eta graduala, ebaluazio sistema ezin da oinarritu azterketa teoriko bakarrean. Metodologiaren eta ebaluazio sistemaren arteko koherentzia ezinbestekoa da. **Irakastea** zen lehen helburu, orain **ikastea** da. Subjektu protagonista ikasleak behar du izan. Bera da bere ikasketa prozesua kudeatzen duena eta, batez ere, ezarritako gaitasunak progresiboki eskuratzen dituen. Gradualtasun hori kontuan izan behar du ebaluazio sistemak halabeharrez. Gaitasunak ez dira azken froga bakar batean neurtzen eta ez soilik bakarka, gainera. Talde txikien garrantzia islatu beharra dago ebaluazio sisteman nahitaez, baita talde handiaren pisua ere. Halaber, kontuan hartu behar dira gaur egun indarra eskuratzen doazen balio berriak. Ezagupen teorikoek lehenetsuna galdu dute ikasleen beste trebetasun batzuekin ordezkatuak izan baitira:

- ✚ Diziplinanitzeko talde txikietan lan egiteko gaitasuna
- ✚ Erabakiak hartzeko trebetasuna
- ✚ Irudimena eta berrikuntza
- ✚ Espresioa eta komunikazioa (hizkuntzak barne)
- ✚ Biziarteko ikaskuntza prozesu progresiboa
- ✚ Giza baliabideen kudeaketa
- ✚ Erantzukizun profesionalak eta etikoak barneratzea
- ✚ Elkartasuna
- ✚ Autonomia
- ✚ Egitura horizontalagoen aldeko apustua

Gauzak horrela, lauhilabetekoaren ibilbide oso kontuan hartuko duen ebaluazio sistema diseinatu beharra dago. Errespetuz ikasleen gradualtasuna kontuan hartuko duena, hasieratik bukaerarte. Gradualtasun horrekin batera beste plano bat ere uztartu beharra dago: ikaslearen, talde txikiaren eta talde handiaren arteko erlazioa, hiru planoen eraginkortasuna kontuan hartuz eta balioetsiz. Hauexek dira ebaluazio-sistema berritua oinarritzen duten ardatz nagusiak:

- **EBALUAZIO GRADUALA:** Talde txikiek egindako lan guztiak balioetsiko dira, kronograman planifikatzen diren datetan entregatu eta aurkeztutakoak. Lan orok izango du bere zuzenketa. Eta zuzenketa horren emaitza ikasleek astero





ezagutuko dute. Hala, euren buruak neurtzeko tresna eskura izango dute. Beren lana eta errendimendua nola doan jakingo dute eta hobetzeko tarteak ere sortuko zaie. Ez dute euren lan osoa emaitza bakarrarekin lotuko. Euren ikasketa-prozesuaren gradualtasunarekin bat egingo dute. Ez dago dena frogatuta batean jokatzetik. Beldurra ere gutxitu egiten da, urduritasuna baretu. Euren eskuetan dago errendimenduaren etekina areagotzea edo murriztea. Euren eskuetan dago lana eta esfortzua dosifikatzea eta neurtzea. Horrek heldutasuna dakarkie, erantzukizuna baneratu behar dutela jakinarazten die. Euren protagonismoa sendotzen du eta egoeraren kontrola ematen die.

- **EBALUAZIO KUALITATIBOA:** Irakaskuntza-prozesuaren paradigma aldatzarekin bat egin behar du ebaluazio sistema berriak. Hala, irakasleak ez du lan bakoitza zenbaki soil batekin balioetsiko. Talde bakoitzari euren gabeziak eta euren lanaren puntu indartsuenak azpimarratuko zaizkio. Horrela taldeak jakingo dut kualitatiboki zer den hobetu beharrekoa. Gaitasunak eta trebetasunak nolakotasunak dira, ezin dira zenbaki hutsetan neurtu. Ikasleak jakin behar du gaitasun zehatz bat eskuratzen joateko bidean non kokatzen den.
- **EBALUAZIOAREN OBJEKTO DIREN EREMUEN TAULAK ALDEZ AURRETIK EZAGUTZEA:** Garrantzitsua da, halaber, ikasleak alde aurretik jakitea nola ebaluatuko zaizkion lanak, bakarkakoak eta talde-jardunak. Ebaluazio taulak eskainiko zaizkie gida honetan. Lan bakoitzean irakasleak, eskuratu beharreko gaitasunei begira, ikasleen jardunetik zer balioetsiko du eta nola. Taula horietan agertuko dira aztertuko diren eremuak. Hala, ez dira bakarrik ezagupenen zuzentasuna eta zehaztasuna balioetsiko. Hizkuntzaren zuzentasuna, komunikatzeko gaitasuna, aurkezpenaren forma, orijinaltasuna, berrikuntza, taldearen autonomia eta kohesioa eta informazioa eskuratzeko lortutako iturriak ere balioetsiko dira.
- **TALDE-LANAREN ETA BAKARKAKO JARDUNAREN ARTEKO OREKA:** Bi plano hauek derrigorrez uztartu behar ditu ebaluazio sistema berriak. Ezin da bietako bat alde batera utzi, taldean lan egitekoa baita eskuratu beharreko gaitasun bat. Aldi berean, ikasleak besteengatik bereizitako balorazioa izateko eskubidea ere badu, ikasleak ezberdinak direlako





denak eta konpromiso maila ere ez baita berdina pertsona guztiengan. Hala, talde-lanak azken emaitzaren portzentaje bat suposatuko du eta norbanakoaren lan bereziak beste bat, hurrengo atalean zehaztuko dugun bezala. Horrela, beraz, talde-lanak kideen helburuak lotu egingo ditu. Kide bakoitzaren helburua beste taldekideen helburu bera izango da. Guztiek nahi izango dute taldeak emaitza onak ateratzea eta bide horretan guztien konpromisoa areagotu egingo da. Gainera, ebaluazioa graduala izateak helburu horiek eskuratzeko bidean kideak motibatu egingo ditu. Hasieratik izango dute euren buruak neurtzeko tresna andana eta hobetzeko aukera. Ebaluazio taulen bidez jakingo baitute hasieratik zein eremu balioetsiko zaizkien eta zeintzuk diren, horien aurrean, taldearen gabeziak eta aspektu indartsuak. Talde bakoitzaren idiosinkrasia ere azpimarratua geratuko da, pluraltasuna eta dibertsitatea bermatuz.

- **TALDE HANDIAREN JARDUNAREN BALORAZIOA:** Plano hau norbanakoaren eremuarekin lotua dago. Motorra den osoko bilkura honetan ASISTENTZIA eta PARTE HARTZEA berebizikoak izango dira. Ikasle bakoitzaren konpromisoa talde handiaren martxarekin nahitaez kontuan hartu beharko da. Eztabaidetan parte hartzeko jarrera; beste ikaskideen aurkezpenen aurrean jarrera eraikitzailea eta errespetuzkoa; zalantzak plazaratzeko adorea; hausnarketa interesgarriak eta aproposak burutzeko trebetasuna; ordutegiekiko errespetua; eskoletara ez etortzea justifikatzea; giro ona sortzerakoan erantzukizuna barneratzea. Euskarri didaktikoak aldez aurretik talde txikietan lantzeak ekarriko du talde handiaren haztea, nolana. Ikasleek lehenagotik jorratua izango dute talde handian landuko dena. Eztabaidatzeko orduan abiapuntuak finkatuak egongo dira eta ikaskideen aurkezpenen edukia besteek ere ezagutuko dituzte. Horrek talde handiaren kohesioa ekarriko du eta programa osatzen duten gaien zehaztasunetik eztabaida abstraktu eta sakonagoetara salto egitea ahalbidetuko du.
- **BANAKAKO AHOZKO AURKEZPENAK:** Egoki eta era eraginkorrean komunikatzekoa eskuratu beharreko gaitasun esanguratsu bat den heinean, garrantzia emango zaio, nola ez, ikasle bakoitzak talde handian egingo duten aurkezpenari. Edukia ezaguna izango da guztiontzat. Beraz, aurkezpenak





oinarri sendoa izango du. Ikaskideek jakingo dute alde zurratik aurreratu burutuko duena zeri buruz arituko den. Horrek ere lasaitasuna emango dio aurreratu egongo duenari, ez baitu gai ezezagun baten inguruan aritu beharko. Gainera, ikasle bakoitzak jakingo du ere, aurreratu egin zurratik, irakasleak zein eremu balioetsiko dituen: zer izango du kontuan eta nola. Horrek ere ziurtasuna emango dio ikasleari bere aurreratu antolatze orduan, puntu ahulak indartzeko berriz izango baitu. Aurreratu amaitutakoan beste ikaskideek ñabardurak egin ahal izateko aukera izango dute, bai positiboak bai gabeziei lotutakoak ere. Irakasleak ere egingo ditu publikoki berari dagozkionak. Txalo zaparrada batekin bukatuko da saio bakoitza.

- **BANAKAKO FROGA:** Aurreratuaz gain, ikaslearen banakako errendimendua neurtu beharra dago. Azken emaitzaren portzentaje bat ikasleari bakarrik dago, talde txikiaren jardunak eta talde handian erakutsitako jarrerak ez baitu balorazio osoa betetzen. Hala, ikasleei bakarkako frogaren bat egingo zaie, alde zurratik jorratutako euskarri didaktikoen oinarrian. Landutakoa izango da frogaren horien oinarri, beraz, modu honetan, talde txikiak aurreratu lan bere parte hartzea emaitza kolektiboarekin bat datorrela bermatuko da. Puntu honetan disfuntzioak ageri ohi dira, ikasle batzuek euren buruak taldean ezkutatu egiten baitituzte, talde txikiaren babesa eta estaldurarekin. Kasu batzuen koherentzia falta hemen agertzen da eta horrek ahalbidetzen du azken emaitza zuzenagoa izatea, alegia. Talde kolektiboaren lanaren balorazioa berdina denez taldekide guztiontzat, ekidin nahi den, hain zuzen, hori da: taldekide batek edo batzuek lan osoa egin eta besteak horretaz probestea. Ikaslearen rola arabera, hau gertatu ohi den gauza bat da eta irakasleak adi egon behar du. Talde txikiaren emaitzak azken balorazioaren ehuneko ehuna eramango balu ikasle askoren jarduna tranpatia litzateke. Hala izan daitekeela frogatua izan da kurtsoz kurtso. Horrela ba, zuzenketa-mekanismo bezala hartu izaten da bakarkako frogaren afera. Irakasleak hor ez dauka irakaslearen aurrean ezkutatzeko betarik eta talde txikian eta handian estali diren gabeziak detektatzeko balio izaten du bakarkako frogak. Horrela ebaluazio sistema borobila da, errealitateari lotuta. Koska taldearen jardunak eta bakarkako frogak azken





emaitzan eramaten duten portzentajea zehaztean datza. Ez da erraza izaten garrantzi gehiago zeri eman erabakitzea.

IRAKASGAIAREN PLANIFIKAZIO ZEHATZA ATALEZ ATAL

Zer eta nola ikasiko dugun jakinik, nola antolatuko dugu, zehazki, gure ikasgaiaren martxa aurten?

I. LEHENENGO SESIOA: DISEINU OSOAREN AURKEZPENA

Irailaren bigarren astean hasi egiten dira eskolak gure Fakultatean. Aste horretan bertan, lehenengo sesioa edo klasea dugu hasierako erronka. Zergatik da garrantzitsua lehenengo jardunaldi hau? Alde batetik, irakasleak lehenengo aldiz daukalako kontaktu zuzena lauhilabeteko horretan izango dituen ikasleekin. Alderantziz ere, ikasleek lehenengoz ezagutzen dute Zuzenbide zibila I irakasgaiaren ibilbidean lagunduko dituen irakaslea. Hasierako kontaktu pertsonala, beraz. Baina ez bakarrik pertsonala. Lehenengo sesioan aurkezten die irakasleak ikasleei gida hau. Hots, irakasgaiaren nondik norakoa: ikasketa-prozesua, protagonistak, egitura, ikasiko dena, ikasteko modua eta ebaluazio sistema. Ikasle berriarentzat erabateko garrantzia duten eremuak guztiak. Nahitaezkoa da ikasleak lehenengo sesiotik ezagutzea hurrengo asteetan jorratuko duena eta nola garatuko den irakasgaia. Hainbat datu pilatzen dira informazio horretan; beraz, oso inportantea da era antolatuan eta pedagogikoan plazaratzea. Ikasle berriak dira: lehenengo aldiz Fakultatera sartu direnak. Ikastetxetik Unibertsitatera lehenengoz salto egiten dutenak. Euren artean, gehienak, ezezagunak. Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako herri ezberdinetatik etorriak, orain arte behintzat.

Lehenengo sesioaren egitura, hala, hau izan ohi da gure irakasgai honetan:

- **Irakaslearen aurkezpena eta harekin komunikatzeko bide ezberdinen azalpena**
- **Ikasleen aurkezpena**
- **Irakaskuntza-prozesuaren dimentsioa eta egitura**
 - **Irakaskuntza-ibilbidearen subjektu protagonisten marrazkia: talde txikien sorrera eta barne-txostenak**





- **Irakaskuntza-prozesuaren objektua: programa, euskarri didaktikoak eta eskuratu beharreko gaitasunak**
- **Ebaluazio sistema**
- **Kronograma**
- **Irakasle-ikasle arteko akordioa**
- **Aurreko kurtsoetan ikasleek emandako balorazioa gure irakasgaiari eta gure irakaskuntza-prozesuari: emaitza akademikoak eta EHUko zein irakasleak eginiko inkesten balioespenak**
- **Aurretest**

Atalez atal jorratuko ditugu segidan lehenengo sesio honetan jorratzen diren aspektu guztiak, horiek baitira lauhilabetekoaren garapena islatzen dutenak. Atal bakoitzari dagokion froga edo ebidentzia gisa dokumentu ezberdinak erantsiko dira, azkenik, gida honen bukaerako atalean. Ikasleak ikus dezan zertan datzan aspektu bakoitza eta zein den bere formatu grafikoa. Aurreko urteetan sortu eta erabilitako materiala da guztia, baita ikasleek egindako unitateei, frogei eta barne-inkestei dagokiena ere. Orijinalak, denak. **ERANSKINEN atalak** bermatzen du, beraz, gida honetan plazaratutako guztia (datu pertsonalen babesak bermatzen dituen hainbat froga-agiri hemen argitaratu ezin bada ere). Atal honekin batera, unibertsitateak irakasleoi ikasleei egitea galdatzen digun inkesta ofizialak daude, horien emaitzak azken atalean ere kokatuko ditugularik, gure proposamenaren kalitatea eta harekiko jarrera positiboa islatzen duten lagin gisa, alegia.

II. IRAKASLEAREN AURKEZPENA: *Norekin egingo dugu lauhilabeteko honetan Zuzenbide zibilaren ibilbidea?*

Irakasleak eta gida honen sortzaileak **Leire Imaz Zubiaur** du izena. Zuzenbidean doktore, duela hamabi bat urte hasi zen irakasle EHUko Zuzenbide Fakultateko Bizkaiko Atalean, Leioako campusean. Geroztik, Zuzenbide Lizentziaturak (lehen) eta Zuzenbide Graduak (orain) barnebiltzen dituzten Zuzenbide zibilari dagozkion irakasgai guztietan jardun du irakasle: **Zuzenbide zibila I** (Sarrera. Pertsonaren zuzenbidea); **Zuzenbide zibila II** (Eskubide Errealak); **Zuzenbide zibila III** (Obligazioen Teoria Orokorra. Erantzukizun Zibila. Kontratuen Teoria Orokorra eta Kontratuak banaka); **Zuzenbide zibila IV** (Familia zuzenbidea eta Oinordetza zuzenbidea). Duela urte batzuk Euskal Zuzenbide zibila ere bagenuen baina 2010eko Ikasketa Plan Berritik ezabatua geratu zen





derrigorrezko irakasgai bezala. Laster, hautazko irakasgai bezala ateratzeko puntuan izango dugu.

Hauexek dira, halaber, irakaslearekin hartu-emanak izateko ikasleak kontuan hartu beharreko datuak:

Bulegoa: Leioako campuseko I Aularioko 14a

Tfnoa: 94 601 32 10 (kanpotik deitzeko); 32 10 (luzapena)

E-posta: leire.imaz@ehu.es

Tutoretzak: Astelehenak eta astearteak (10:00-13:00)

Irakaslearekin beste egun edo orduren batean tutoretza egin nahi izanez gero aurkeztutako ordutegi ofizialetatik kanpo, emaila bidaliz eta kontaktua lehenago eginez ere posible izango da. Klase edo ordu aldaketak egiteko ere aukera izango dute ikasleek, beti ere irakasleari aldeztu aurretik egoera eta aldaketarako proposamena argi adieraziz.

Irakaslea EHUko irakaskuntzaren berrikuntzan duela urte asko dago murgildua interes handiz. Horretarako hainbat kurtso eta programa landu ditu, gerora ikasleei kalitatezko euskarazko irakaskuntza juridikoa eskaintzearen:

- *“Jornada de Recepción del Profesorado Novel” (5 ordu)*

- *“Educar es emocionante. Herramientas metodológicas para una educación emocional” (12 ordu)*

- *“Pasos hacia la introducción del crédito europeo” (5 ordu)*

- *“¿Cómo facilitar los procesos de aprendizaje atendiendo a la diversidad? Actitudes y habilidades prácticas” (12 ordu)*

- *“Estrategias grupales y cooperativas en el proceso de enseñanza-aprendizaje universitario” (15 ordu)*

- *“Moodle” (8 ordu)*

- *“Web 2.0” (8 ordu)*

- *“Autore” (8 ordu)*

- *“Oratoria jurídica” (12 ordu)*



- “Curso residencial de verano: pedagogía sistémica” (60 ordu)
- “EHU-ren interneteko baliabideak: euskarari buruzko kontsultagunea” (4 ordu)
- “Egokitasuna eta Kalitatea. Euskarazko Testuetan Nola?” (12 ordu)
- “Ahots jaulkitze teknikak” (Técnicas para la impostación de la voz) (10 ordu)
- “Seminario de reflexión sobre Calidad e Innovación Docente en la UPV/EHU: reflexionar desde la experiencia” (16 ordu)
- “Hiztegi Batua: Trebakuntza” (16 ordu)
- “Euskaltzaindiaren araugintza berria” (16 ordu)
- “Euskaltzaindiaren araugintzan sakonduz” (16 ordu)
- “Zalantzak argitzeko lantegia” (16 ordu)
- “Elaboración del plan docente en el marco del EEES” (50 ordu)
- “Liderazgo en el aula” (25 ordu)
- “ERAGIN” Programa, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza, 2011-2012 (300 ordu)
- BIEKO Programa, lehenengo modulua, 2011-2012, euskarazko irakaskuntza materialak sortzeko kurtsoa (50-60 ordu).

Irakaskuntza-berrikuntzari begira egindako kurtso, mintegi eta programa horiez gain, irakasleak Zuzenbide zibilar dagozkion irakasgai ezberdinak kalitatezko euskarri duin batean islatzearen, hainbat ikasmaterial sortu ditu, denak EHUKo Euskara Zerbitzuak orraztuak eta onetsiak. Bost dira orain arte argitaratuak eta seigarrena bidean da, hain zuzen ere, gida honen ardatz den Zuzenbide zibila I (Sarrera. Pertsonaren zuzenbidea) irakasgaiari dagokiona (2012ko deialdia). Hauek denak eta laster argitaratuko dena ere EHUKo Euskara Erretoreordetzak daukan WEB orrialdean eskegiak daude,





ikasleak eskura ditzan. Hala ere, irakasleak ikasleen eskura jartzen ditu kurtsoan zehar:

-*Euskal Zuzenbide zibila*, EHU, Leioa, ISBN 978-84-690-8477-9.

-*Oinordetza Zuzenbidea*, EHU, Leioa, ISBN 978-84-690-8478-6.

-*Familia Zuzenbidea*, EHU, Leioa, ISBN 978-84-692-2633-9.

-*Gauzen Zuzenbidea*, EHU, Leioa, ISBN 978-84-692-2632-2.

-*Obligazio eta Kontratuen Zuzenbidea. Obligazioen Teoria Orokorra*, EHU, Leioa, ISBN 978-84-694-8965-9.

Bukatzeko, gogoratu beharra dago irakaslea Zuzenbide Fakultateko Bizkaiko Ataleko **TUTORE-ORIENTATZAILE** dela, Fakultate Batzarrak izendatua. Figura hau Zuzenbide Fakultatearen Bizkaiko Atalaren eta ikasleen arteko lotura gisa aritzeko jaio zen duela urte batzuk. Ikasleen kontsultarako eta sortu daitezkeen arazoak bideratzeko pentsatua, hain zuzen ere. Halaber, **3. kurtsoko koordinatzailea** da, irakasleen eta ikasleen arteko koordinazio lanak burutzearren, alegia. Fakultateko **Euskara Batzordearen eta Berdintasun Batzordearen kide** bada ere, ikasleek interesik balute horietakoren baten harengana zuzentzeko aukera ere izanik. **Gradu Bukaerako lan baten zuzendaria** izan da 2011-2012 kurtsoan, seniparteari buruzkoa (Oinordetza zuzenbidearen esparruan), eta Ohorezko Matrikula jaso du Jon Atxutegi ikasleak, honen merituari esker, batik bat.

III. IKASLEEN AURKEZPENA: *Nortzuk osatzen dugu talde hau?*

Irakasleak bere burua aurkeztu ondoren, Fakultateak daukan matrikulazioaren araberako zerrenda hartu eta ikasleek euren burua aurkez dezaten proposatzen da. Ez da zerrenda pasatzea, ikasle bakoitzak, nahi duen ordenan, bere izen-abizenak eta bizilekua adieraztea baizik. Helburu anitzak dauzka jardun honek:

- ❖ Ikasleak euren artean ezagutzea eta aurpegi bakoitzari izena jartzen joatea





- ❖ Ikasleak nondik datozen jakitea, hurbiltasunaren kokapena ere garrantzitsua baita, afinitatea sortuz gerora talde txikiak sortzeko aferan
- ❖ Irakasleak izenak ezagutzeko eta izen horiei aurpegiak eta jatorriak eransteko.
- ❖ Irakasleak matrikulazio zerrenda eta klasearen osaketaren arteko balorazio bat egiteko (norbait falta bada ikasleari berari jakinarazteko idazkaritzara joan behar duela edo
- ❖ Lehenengo kontaktua era ludikoan gauzatzeko; izotza apurtzeko eta hurbiltasuna areagotzeko
- ❖ Zenbat izen berdin dauden jakiteko eta, hala, abizenei ere garrantzia emateko eurak izendatzeko orduan
- ❖ Talde txikiak sortzeko orduan irakasleak kalkulatzeko zenbat talde egin behar diren eta euren barne osaketari begira zein den partaideen kopuru egokia
- ❖ Lotsak usatzen hasteko eta jende aurreko komunikazioa garrantzitsua dela ohartarazteko
- ❖ Klasean konfiantza giroa sortzen hasteko, lehenengo heziak hautsiz
- ❖ Ikasleen arteko jakin-mina piztuz, talde-lanari sarrera egokia egiteko

Nortzuk diren eta nondik datozen adierazi eta gero, irakasleak galdetu ohi die **ZERGATIK DAUDE ZUZENBIDE FAKULTATEAN ETA, BALDIN BADAHITE, ZER EGIN NAHI DUTEN GRADUA BUKATZEAN**. Galdera honekin ere, beste helburu batzuk lortu nahi ditu irakasleak:

- Ikasleek Zuzenbide Graduarekiko sortu dituzten aurreikuspenak edo espektatibak ezagutzea
- Ikasleen artean *feedback*-a eragitea, gai zehatzen inguruan. Euren artean beste iritzi batzuk entzutera ohitzea
- Gradua bukatutakoan beraien etorkizuna nola marrazten duten jakitea, eremu profesionalari begira dituzten jomugak ezagutzuz
- Joera horiek ezagututa, masiboak izanik, badago irakasgaiari dagozkion gaitasunetan bati edo besteari intentsitate gehiago ematea, taldearen idiosinkrasia kontuan hartuta
- Ikasleen pentsamendu eta desireri hiztegi teknikoa uztartzen joateko saiakera piztea
- Etorkizuneko kontsulta posibleen nondik norakoa ezagutzea, informazioa eta ikerketa ere bide horretatik eramateko





- Euskarri didaktikoak moldatzeko aukera ere ematen du, joera bata edo bestea nagusituz gero, gaitasun bat edo beste sustatzearen

IV. IRAKASKUNTZA-PROZESUAREN DIMENTSIOA ETA EGITURA: *Zer egingo dugu Zuzenbide zibila I irakasgaiaren lehenengo lauhilabeteko honetan?*

Irakaslearen eta ikasleen aurkezpenak bukatu ostean, giroa jada beroagoa eta ludikoa egonik, zenbait esparru garrantzitsu tratatu egin behar da segidan, ikasleari garrantzitsuak oso suertatzen zaizkionak. Zerrendatzen ditugu jarraian, gerora atalez atal azalduz:

- **Irakasgaiaren programa**
- **Talde txikien sorrera**
- **Euskarri didaktikoak**
- **Irakasgaiari atxikitzen zaizkion ikasketa-helburuak eta aipatu euskarri didaktikoen bidez haiek lortzea**
- **Ebaluazio-sistema**
- **Kronograma**

Irakasgaiaren programa

Irakaskuntza-prozesuaren dimentsioa eta egitura azaltzeko orduan, lehenbiziko pausua zer ikasiko duten adieraztea da, hots, Zuzenbide Graduan Zuzenbide zibila I irakasgaiari begira aurreikusten den programa ofiziala aditzera ematea. Gida honen aurreko atalean garatua dago jada programa hori, beraz, honako atal honetan ez da beharrezkoa suertatzen hura berriro puntuz puntu erreproduzitzea. Irakasleak, beraz, lehenengo sesio honetan, programaren azalpen xumea burutzen du. Berau osatzen duten hiru blokeak azaltzen ditu eta bakoitzaren berezitasunak azpimarratu, alegia. Landuko diren gaien gaurkotasuna eta hurbiltasuna dira azalpen honen ardatz, adibidez josiak. Hamabi gai, hiru ataletan zatituak, hainbat azpiataletan banatuak, gainera. Irakasleak sortua du, gainera, programa hau goitik behera euskara hutsean lantzen duen ikasmateriala; eskemaz, laburpenez, taulez eta euskarri gehigarriekin hornitua. Datu hori ere mahai gainean jarriko du, ikaslearentzat interesgarri suerta daitekeelakoan. Bukatzeko, programaren inguruko zalantzak, ñabardurak edo galderak plazaratzeko aukera irekitzen du irakasleak klasean.





Talde txikien sorrera

Ikasketa-prozesuaren objektua zein izango den azaldu ondoren, programa hori sakon landuko duen operazio-gunea dator harira. Nork landuko du, astero, programatik eratortzen diren gai eta eremu ezberdinak? TALDE TXIKIAK.

Iritsi da talde horiek eratzeko momentua. Zenbait irizpide jartzen ditu irakasleak mahai gainean eta, ondoren, ikasleek askatasunez eratzen dituzte taldeok irizpideoi jarraiki:

- ⊙ Ikasle bakoitzaren bizilekua kontuan hartu beharra dago taldea eratzekoan, izan ere eskoletatik kanpo ere bildu behar dutenez praktikotasuna bilatu behar dute ikasleek elkartzeko tokiak eta euren arteko hurbiltasuna baloratuz
- ⊙ Ikasle bakoitzaren ordutegiak eta eskoletatik kanpo biltzeko denbora librearen zenbatekoa den ere aztertu beharra dago. Ikasle batzuk lanean dabilta edo eta bestelako kurtsoak egiten.
- ⊙ Aberasgarria izaten da neskekin eta mutilekin osatutako talde mistoak sortzea. Jenero ikuspuntua oso nabarmena dela argi geratzen da aurreko urteetako esperientzian. Jarduteko modu ezberdina izan ohi dute neskek eta mutilek, baita lanak egin eta aurkezteko momentuan ere. Kontraste horrek izugarri aberasten du taldea, baita esperientzia bera ere lauhilabetekoak dirauen bitartean. Gainera, errealitateari eta eremu profesionalari lotuagoa dago aukera hau.
- ⊙ Bukatzeko, matrikulazio zerrendari so eginez eta ikasle kopuruari erreparaturaz, irakasleak taldeak izan behar dituen kide kopurua zehazten du (3-5 bitartean, posible bada).

Taldeak normalean jada ezagutzen direnen artean sortzen dira. Hasieran kostatzen baita taldea ezagutzen ez duzun norbaitekin eratzea. Hala ere, kasu batzuetan ez dago beste aukerarik eta elkar ezagutzen ez dutenen artean sortzen da taldea. Batzuk mistoak eta beste batzuk ez.

Behin taldeak eratuta, kideak elkarrekin jesartzeko gonbitea luzatzen du irakasleak. Hala eseriko dira lauhilabetekoak dirauen bitartean: hasieratik bukatu arte. Segidan, barne-txosten bat banatzen zaio talde bakoitzari. Barne-txosten hau bete behar dute guztiok elkarrekin eta irakasleari entregatu bukatutakoan, lehenengo sesio horretan bertan, jakina. Txosten honek hainbat datu betetzea dakar:





- Taldekideen izenak, abizenak eta emailak
- Taldearen izena
- Taldearen bozeramalearen izendapena
- Barne-araudia: taldearen barne-funtzionamendua antolatzeko bururatzeko zaizkien arau edo erregela sorta (lauhilabetekoan zehar arau gehiago ezarri nahi badituzte taldean irakasleak txostena eman, eurek zuzendu, eta berriro irakasleari itzuli egingo diote). Euren artean liskarren bat sortuz gero haiek adostasunez eraturako erregela horiek erabiliko dira arazoak konpontzeko. Araurik ez badago, adostasunez konpontzen saiatu beharko dira eta, hori ere posible ez bada, irakasleak erabaki beharko du soluziobidea zein den.
- Taldekide guztien sinadura

Taldeak sortuta, euren egin beharrak zeintzuk izango diren azaltzen zaio klase osoari:

- ✓ Eskoletan talde dinamikak planteatzen direnean elkarrekin landu talde txikian eta irakasleari entregatu sesioa bukatutakoan
- ✓ Eskoletatik kanpo egiteko ematen diren talde dinamikak astean zehar elkarrekin egin eta irakasleari puntual entregatu honek zuzendu ditzan
- ✓ Irakaslearen ebaluazioa jasotakoan berau aztertu, puntu ahulak eta indartsuak birpasatu eta hausnarketa egin elkarrekin talde-lana hobetzeko proposamenak aurrera eramanez
- ✓ Talde-dinamikak egiterakoan arazoak detektatuz gero beroieiei aurre egin eta soluziobideak aurkitzen saiatu
- ✓ Lanak egiterakoan zalantzak sortuz gero bozeramalearen bidez irakaslearekin kontaktuan jarri eta argitu
- ✓ Beharrezkoa bada tutoretza kolektiboa eskatu irakaslearekin zalantzak edo arazoak konpontzen saiatzeko
- ✓ Talde handian astean zehar jorratutako dinamikak zuzentzen direnean parte hartu eta beste ikaskideek egindako ekarpenak kontuan hartu

Horrela, talde txikiek eskoletan eta eskola kanpoko dinamiketan gune garrantzitsuena izango da. Berebizikoa da, beraz, taldekideen arteko oreka eta komunikazio egokia. Klasean egin beharreko dinamiketan eraginkorra izan beharko du taldeak: kide guztiak inplikatu beharko dira dinamikan eta



emaitza guztion erantzukizuna dela barneratu beharko dute. Eskola kanpoko dinamiketan gauza bera. Taldean lan egitea ez da kide bakoitzak bere kabuz lanaren zati bat egitea eta gero dena itsastea irakasleari entregatu beharreko laginean. Kontrakoa. Hori ekiditeko irakasleak talde handian talde txikietako edozein kideri egin diezazkioke dinamikaren inguruko galderak, lana benetan taldean egiten dela bermatzeko eta taldeak eramango duen ebaluazio osoaren portzentajea justua dela ziurtatzeko. Eskoletatik kanpo egiten dituzten dinamikei dagokionez, hurrengo sesio irekiaren hasieran lanaren ale bat entregatu beharko diote irakasleari eta taldekide bakoitzak kopia bat eramango du klasera. Bertan zuzenduko dira guztion artean ariketa ezberdinak eta zuzenketa horiek bakoitzaren alean txertatzearen ardura banakakoa izango da, ez talde txikiarena. Hortik ikasi beharko baitu ikasle bakoitzak gero bakarkako froga egiteko. Kopia hori ez eramatea ikaslearen erantzukizuna izango da eta, gainera, talde handian egingo diren zuzenketa haria galtzeko arriskua areagotu egingo da kopia ez daraman ikaslearentzat.

Gainera, astero talde txiki batean kokatuta dagoen ikasle batek astean zehar eskoletatik kanpo egin beharreko lan dinamika talde handiaren aurrean aurkeztuko du, hots, talde txikian landu dutena (aurkezleak eta bere taldeak zein beste ikaskideek, denek berbera) komunean jarriko du irakaslearen tokian jarritz bere azalpena emateko. Aurkezpen horren bidez zuzenduko dira ariketa ezberdinak, bakoitzak bere iritzia eman ahal izango duelarik. Aurkezleak talde txikiaren lana publiko bihurtuko du eta agerian geratuko da taldearen puntu ahulen eta indartsuen zerrenda. Ikaskideen ñabardurak jasoko ditu aurkezle horrek, baita irakaslearenak ere. Eta, noski, ebaluatu egingo zaio esposizioa.

Euskarri didaktikoak: orotariko ariketak eta informazio-iturriak lortu beharreko gaitasunak eskuratzeko bidean

Behin programa azalduta (zer ikasiko duten) eta ikasketa-prozesuaren muina izango den subjektua eratu ondoren (talde txikia), hori dena gauzatzeko aukera zabalduko duten dinamika eta ariketa ezberdinak azalduko dira.

Ariketa guztiak ezberdinak dira baina kurtsoari eta irakasgaiari atxikitzen zaizkien gaitasunak barnebiltzen dituzte guztiek, hauen aspektu ezberdinak jasoz. Jarraian, urtetan landutako euskarri didaktiko hauen zerrenda eta bakoitzaren azalpen xumea, helburua barne:





- * **Definizioak:** kontzeptu teknikoak definitzen ikasiko dute ikasleek; definizioaren egitura, edukia eta forma zainduz. Ariketa hona da hiztegi juridikoa lantzeko, baita ikaslearen laburtzeko gaitasuna lantzeko. Hizkuntzaren joskera ere jorratu egiten da horrela.
- * **Galdera laburrak:** Ikasleak gai abstraktu, konplexu edo luze baten laburpena egin behar du, egitura eta forma egokia mantenduz eta garrantzitsua den edukia barneratuz, soberan dagoena alde batera utziz. Sintesi ariketa eta garapen ariketa aldi berean. Idazketa lantzen da, baita laburtzeko teknika ere. Espazioa mugatua da, ezin da eskaintzen den espaziotik atera. Letra eta garbitasuna zaindu beharra dago, aurkezpenen formatuak landuz.
- * **Kontraste ariketak:** Bi mota ezberdinetakoak planteatu daitezke, izatez.
 - Antzekoak diren baina ezberdintasunen bat duten bi kontzeptu kontrastatzea eta desberdintasun urri horiek ateratzea. Antzekoa dena bereiztea. Kontzeptu bakoitzari bere espazioa ematea eta, hala, hiztegia aberastea.
 - Erabat ezberdinak diren kontzeptuak erlazionatzea eta hurbiltzea. Hala, urrunak diruditen figurak hurbiltzen dira, konektatzen dira.
- * **Testu iruzkinak:** Doktrina testuak ematen zaizkie ikasleei zenbait eremu edo aspektu zehatz lantzeko. Autore jakin batek burutu duen testua mahai gainean jarri eta ulermen ariketa egin ondoren, euren hitzetan adierazi behar dute irakurri dutena.
- * **Lege-testuen iruzkinak:** Gauza bera baina indarrean dagoen legediarekin. Ikasleak Kode zibileko edo lege bereziren batean jasota dagoen atal bat irakurri eta iruzkin bat egin behar du atalaren esanahia adieraziz eta beste atalekin konektatuz.
- * **Epaien iruzkinak:** Batzuetan gai esanguratsu eta polemiko batzuen inguruan jurisprudenzia aztertuko dute eta epai baten edo besteren iruzkina egin beharko dute. Irakurri, epaiaren egitura barneratu eta baita terminologia judiziala ere bai. Horren ostean, jorratzen ari garen gaiarekin duen lotura azaldu beharko du, jurisprudenzia gehienetan aldakorra dela jakinik.
- * **Puzzle sistema:** Testu ezberdinak banatzen dira talde txikietan (4-5 testu labur: A, B, C, D). Kide bakoitzak testu bat irakurri eta landu egiten du. Hori egindakoa beste talde txikietan testu bera landu dutenekin bildu (A testua landu duenak A testua beste taldeetan jorratu dutenekin batzen da) eta komunean



jartzen dituzte bakoitzak bere kabuz ateratako ondorioak. Segidan jatorrizko taldera bueltatu egiten dira eta bakoitzak bere taldekideei azaldu egiten die irakurri eta ulertu duena eta beste kideekin adostutakoa. Denok gauza bera egin eta, azkenean, taldean egin beharreko ulermen ariketa bat ematen zaie lau testuetan agertzen diren eremuei buruzko galdetegi batekin. Emaitzak oso onak izaten dira, ulermena areagotzen baita taldeka kontrastea egitean, norberak dituen zalantzak besteen azalpenekin indartzean eta gero bere taldekideei azaltzean. Dena denbora neurtuarekin egiten da.

- ✱ **Lege-testuen galdetgia:** Ariketa hau asko gustatu egiten zaie ikasleei. Baieztapenak edo ezeztapenak jartzen zaizkie. Eurek erabiltzen ditugun lege testuetan aurkitu behar dute egia edo gezurra dioten. Lege testuetan mugitzen jakiteko erabiltzen da froga hau, baita legeen atal ezberdinak ulertu eta benetako zentzua ateratzeko.
- ✱ **Garatzeko galdera luzeak:** Espazio tarte luzea uzten zaie ikasleei eta bertan sakontasunez garatu behar dute gai jakin bat. Garapen honek egituratzea eta idatzizko komunikazioa lantzea dakar; ideia ezberdinak antolatzea eta diskurtsoa txukun eta koherentziaz plazaratzeko trebetasuna jorratzea, alegia.
- ✱ **Ikerketa lanak sarean:** Sarean bilatu behar ditu ikasleak informazio ezberdinak; orrialde ofizialetan zein ez-ofizialetan. Informazioa filtratzeko trebetasuna lantzen da honako ariketa honetan, baita sarean ibiltzeko ohitura eta ahalmena. Kutsu informatikoa ere badauka ariketa honek. Normalean ikasleak gustura aritzen dira honako aferetan.
- ✱ **Jurisprudentzia bilaketak:** Taxu informatikoa ere badauka erroka honek. Auzitegi ezberdinek emandako epaiak kontsultatu behar ditu ikasleak interesgarria suertatzen zaion gaiari lotuta. Ez da erraza izaten maiz bilaketa hau, item ezberdinak sartuz lortu behar baita, behin eta berriz, bilaketaren arrakasta. Iturri garrantzitsua da eurentzat, batez ere etorkizunari begira, epaiek jasotzen duten ildoak baita eurek argumentu bat edo beste defendatzeko erabili dezaketen (eta behar duten) euskarria. Eguneratuak izan behar dute epaiek, gainera. Hor dago errokkaren arlo garrantzitsuena.
- ✱ **Legeen hitzaurreen azterketak:** Onartu eta publikatu diren lege berrien hitzaurreak jorratzean datza. Bertan informazio interesgarria ageri zaigu, legegintza politikari begira. Ikasleak jakin behar du lege bat zergatik eta zertarako onartu den





legebiltzarrean; zein motatako legea den eta nori eragingo dion. Noiztik aurrera jarriko da indarrean eta zeintzuk dira dakartzan berrikuntzak. Lege zaharrekin konparatzeko eta legegintza jarduna egungo egoerak sorrarazten dituen beharrezanekin bat datorren ikertzeko ere balio du ariketa honek. Heldutasuna ematen du eta abstrakzio maila nabarmena.

- ✿ **Talde lehiaketak:** Batzuetan ikasleak lehian jartzea ere komenigarria izaten da, egoeraren arabera. Gai jakin batekin egiten da proba: izaera ludiko batekin euren lehiakortasuna martxan jarri eta tentsio puntu sano bat sorraraztea, alegia. Gustatu egiten zaie eta ondo prestatzen dute lehiaketa.
- ✿ **Ikerketa instituzioetan:** Instituzioetara joan eta bertan zuzenean arduradunei galdetzea ere izaten da erronka polita (Erregistro Zibila; Arartekoa; elkarteak; fundazioak...). Klasean jorratzen diren instituzioak gertutik ezagutzea eta forma ematea, liburuek eta legeek diotenetik at. Klean ibiltzea eta kudeaketaren mundura hurbiltzea izaten da erronka ariketa honetan. Banaka, binaka edo taldeka egin daiteke eta gero jasotako informazioa klasearen aurrean aurkezteak borobiltzen du ariketa.
- ✿ **Banakako aurkezpenak:** Esan bezala, ahozko komunikazioari bultzada handia eman nahian, ikasle guztiak pasa behar dira, euren onurarako, ariketa honek dakartzan emozioetatik. Klase osoaren aurrean gai bat jorratzea (10-15 min). Ariketa etxetik prestatua dakarte eta klaseko ordenagailua eskura dute aurkezpenean lagunduko dituen euskarria jartzeko. Bukatutakoan, gainera, kideen iruzkinak jasoko dituzte eta baita irakaslearenak ere. Hauek jasotzen ikasi behar dute, beraz, gaitasun andana lantzen da ariketa honekin.
- ✿ **Aurkezpen kolektiboak:** Batzuetan, ahozko aurkezpen horiek kolektiboak izan daitezke, gai zehatz batek hala eskatzen edo gomendatzen badu. Batzuetan informazioa handia da eta egituratu beharra dago. Aurkezpena talde batek har dezake bere gain klase guztiaren aurrean. Aurkezpen hauetan bereizi behar da talde-lana eta ikasle bakoitzaren gaitasuna ahoz komunikatzeko.
- ✿ **Kideen lanak zuzentzea:** Batzuetan ikasleek irakasle papera hartzea ere gomendagarria izaten da, euren buruak beste batzuen lanak zuzentzen ikus ditzaten. Euren zurruntasuna edo malgutasuna agerian geratzen da; exigentzia maila eta





zorroztasuna. Ludikoa da, izatez, ariketa. Baina analisirako fruitu majo eskaintzen du.

- ✿ **Ariketak sortzea:** Ildo beretik, batzuetan ikasleei esleitzen zaie klasean jorratu beharko diren ariketak prestatzeko lana. Eurek asmatu behar dituzte gai baten inguruan berau birpasatu eta lantzeko ariketa ezberdinak. Bi gaitasun, beraz: gaia sakon lantzea eta lortu nahi duten erantzunaren arabera galdetzen jakitea.
- ✿ **Azterketak eratzea:** Bide beretik, batzuetan ikasleak dira azterketaren egitura eta puntuazioa prestatzen dutenak, edukian sartu gabe. Informazio iturri ona da eurek nahi duten azterketa mota zein den jakiteko eta klasearen sakontasunarekin eta erritmoarekin koherentzia mantenduz ebaluazio sistemari dagokionez plazaratzen duten proposamena ezagutzeko. Irakaslearen papera lantzen dute eta enpatia ere landu egiten dute, bide batez.
- ✿ **Elkarrizketak prestatzea:** Bestetan, pertsona ezberdinei gai tekniko baten inguruan galdetegia egiteko erronka jartzen zaie mahai gainean. Harira joateko gaitasuna eta formaren txukuntasuna lantzen dira, baita hiztegia eta komunikazio gaitasuna, alegia.
- ✿ **Problemak:** Arazo praktikoak planteatzen zaizkie. Eurek arazoa detektatu eta soluziobide bat topatu behar dute indarrean dagoen legeria edo jurisprudentzia erabiliz. Ikerketa areagotzeko funtzioa izaten dute problema hauek, baita elkarren artean eztabaidatzekoa eta arazo errealei irtenbide bat emateko gogoia estimulatzekoa ere. Hau izaten da, finean, Problemetan Oinarritutako Ikasketaren ardatza. Adibidez:

Gurutzetako ospitalean ume bat jaiotzen da 2011ko urriak 8an, goizeko 7.15etan. Malen du izena. Bere neurria: 49 cm. Bere pisua: 3.5 kg. Ane eta Maialenen alaba da. Ez daude ezkondu. Maialen erditu da. Umeak arnas aparatuan arazoak ditu eta bizirik irauteko aparatu baten laguntza behar du. Inkubaduran dago. Aneren aita, aitite izatearekin txoraturata dohaintza bat egiten du ilobaren alde 2011ko uztailaren 2an Bermeoko notaritzan. Aititek Maleni (amaren sabelean zegoena) eraikitzeo aukera duen lur sail bat ematen dio dohaintzan.

Goiz batean, Anek eta Maialenek, ospitalerantz autoz doazela alaba ikustera, istripu bat pairatzen dute. Biak hil egiten dira. Malenek bi aitite eta amama bat dauzka (hau Maialenen aldetik). Maialenek ezkonduak bi ahizpa ditu eta horietako batek bi seme-alaba dauzka. Anek ezkongabeko neba dauka. Denek nahi dute Malen bere kargu hartu. Azkenean, Jone eta Harkaitz (Malenen izeba-osaba Maialenen aldetik) dira Malenekin geratuko direnak.

Jone eta Harkaitz dibortziatu egiten dira Malenek 12 urte dituenean, Harkaitzek sexu-aldaketa egin baitu. Malen Harkaitzekin dago bizi zena. Harkaitz orain Olatz deitzen da. Honek Malen adoptatu nahi du, bere legezko alaba bilakatu, alegia. Malenek tatuaje bat eta piercing bat egin nahi ditu 13 urterekin. Motorzaleen elkarte baten kide izan nahi du eta 125 CC-ko motorra erosi nahi du. Berak badu bere ondarea. Olatz ez dago erabaki horiekin ados, Jone bai, ordea. 16 urterekin arropa denda batean lan egin nahi du Malenek. Jabeak lan kontratu

INAGURU BAIKIDIA. Malen Harkaitzekin dago bizi zena. Harkaitz orain Olatz deitzen da. Honek Malen adoptatu nahi du, bere legezko alaba bilakatu, alegia. Malenek tatuaje bat eta piercing bat egin nahi ditu 13 urterekin. Motorzaleen elkarte baten kide izan nahi du eta 125 CC-ko motorra erosi nahi du. Berak badu bere ondarea. Olatz ez dago erabaki horiekin ados, Jone bai, ordea. 16 urterekin arropa denda batean lan egin nahi du Malenek. Jabeak lan kontratu





Gera gaitezen, apur batean, **ariketa honen helburu aniztasunari** gainbegiratu bat ematen:

- Ariketa bakar batean programako zazpi gaietan zehar jorratzen diren aspektu garrantzitsuenak lantzen dira. Zazpi gai, ariketa bakar batean!
- Hala, protagonistaren bizitza erabiltzen da, bere etapa ezberdinekin, pertsona fisikoei zuzenean eragiten dizkiguten bizitzako hainbat alor lantzeko:
 - Jaiotza
 - Gaitasun juridikoa
 - Jarduteko gaitasuna
 - Adina
 - Emantzipazioa
 - Tutoretza
 - Adopzioa
 - Adingabetasuna
 - Legezko absentzia
- Malenen jaiotzarekin eta bere inguruabarrekin galdera asko sortzen zaizkie ikasleei eta galdera horiei erantzun zuzena edo egokia emateko erronka sorrarazten zaie:
 - Posible da Malenek bi ama izatea? Nola, baina?



- Zeintzuk izango dira bere abizenak eta zein ordenatan jarri behar dira?
- Aititek dohaintza egin diezaioke oraindik jaio ez den umekiari? Noiztik eskuratzen du lur-sailaren jabetza Malenek?
- Malenen bi amak hil badira nor kargutuko da beraz? Nork erabaki behar du hori batek baino gehiagok nahi dutenean funtzio hori bete?
- Pertsona batek bere sexua alda dezake? Nola? Legezkoa al da? Non egiten da?
- Zer egin dezake adingabe batek bere kontura eta zer ez?
- Adingabearen eta bere arduradunen artean liskarrak daudenean zer egin daiteke?
- Adingabeak izan dezake bere ondarea?
- Nork administratuko du bere ordez?
- Nola adoptatzen da? Nork nor eta zeintzuk betekizunekin?
- Adingabe bat joan daiteke bakarrik bizitzera?
- Baimena eskatu behar du adingabe batek lan kontratua izateko? Norena?
- Zenbat urterekin sinatu dezake adingabe batek lan kontratu bat?
- Zenbat urterekin ezkondu daiteke pertsona fisiko bat?
- Zer egin behar da pertsona bat desagertutzat jotzen denean?
- Praktikotasun nabarmena duten hainbat eta hainbat aspektu jorratzen dira problemaren formatuarekin. Gaurkotasan handiko kontuak. Ikasleak gertu bizi dituztenak askotan. Problemarekin galderak sortzen dira; galderei erantzuteko ikasleak ondo ulertu behar du erantzun beharrekoa. Ulermen ariketa egin ondoren, erantzuna non bilatu jakin behar du eta, hori badakienean, bilatu, jakina. Horretarako, lehenago, garrantzi juridikoa duten ez duten hipotesien arteko bereizketa argia egin behar du ikasleak. Erantzunak non dauden badakienean irizpideak argudiatu eta soluziobide guztietatik egokiena aukeratu behar du. Hautu hau arrazoitu behar du eta, bukatzeko, ondo aurkeztu. Idatziz zein ahoz. Ariketa integrala da, osoa. Ikaslearen autonomia bultzatzen duena. Ikaslea bere ikasketa-prozesuaren protagonista bilakatzen du eta ikasitakoa barneratzeko zutabe sendoak sorrarazten ditu. Horra hor paradigma aldaketa!!



Erantzunak bilatzeko bada hainbat txoko. **Euskarri bibliografikoak** ditugu horiek, batik bat. Hauexek esanguratsuenak, irakasgai honi dagokionez:

Oinarrizko eskuliburuak

-ALBALADEJO, Manuel: *Derecho Civil I: Introducción y parte general*, Madril.

-DE PABLO CONTRERAS, Pedro; MARTÍNEZ DE AGUIRRE, Carlos; PÉREZ ÁLVAREZ, Miguel Angel; PARRA LUCÁN, Maria Angeles: *Curso de Derecho Civil I: Derecho Privado. Derecho de la Persona*, Madril.

-DÍEZ-PICAZO, Luis eta GULLÓN, Antonio: *Sistema de Derecho Civil*, I, Madril.

-LACRUZ BERDEJO, Jose Luis eta beste batzuk: *Elementos del Derecho Civil I* (1-3), Madril.

-PUIG I FERRIOL, Luis; GETE-ALONSO Y CALERA, Maria del Carmen; GIL RODRÍGUEZ, Jacinto eta HUALDE SÁNCHEZ, Jose Javier: *Manual de Derecho Civil. I: Introducción y Derecho de la Persona*, Madril.

-ALBALADEJO, Manuel eta DÍAZ-ALABART, Silvia (zuzendariak): *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*, Madril, hainbat liburuki, ale eta edizio, 1978z geroztik.

-BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo (koordinatzailea): *Comentarios al Código Civil*, Iruñea, 3. arg., 2009.

-CASTÁN TOBEÑAS, José: *Derecho civil español común y foral*, Madril, hainbat liburuki, ale eta edizio.

-DÍEZ-PICAZO, Luis; PAZ-ARES, Cándido; BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo; eta SALVADOR CODERCH, Pablo (zuzendariak): *Comentario del Código Civil*, Madril, Justizia Ministerioa, 2. arg., 1993, bi liburuki.

-PASQUAU LIAÑO, Miguel (koordinatzailea): *Jurisprudencia civil comentada*, Granada, 2. arg., 2009, hiru liburuki.





-RAMS ALBESA, Joaquín (koordinatzailea): *Comentarios al Código civil*, Bartzelona, hainbat liburuki eta ale, 1999z geroztik.

-SIERRA GIL DE LA CUESTA, Ignacio (koordinatzailea): *Comentario del Código civil*, Bartzelona, 2000, bederatzi liburuki.

Lege testuak

Espainiako Konstituzioa (1978ko abenduak 6)

Lege Organikoak

- Ohore, Intimitate eta Irudi Eskubideei buruzkoa (1/82, maiatzak 5)
- Datu Pertsonalak babesteari buruzkoa (15/1999, abenduak 13)
- Zuzenketa eskubideari buruzkoa (2/1984, martxoak 16)
- Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa (1/1996, urtarrilak 15)

Lege arruntak

- Kode Zibila (1889)
- Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzkoa (3/1992, uztailaren 1)
- Erregistro Zibilar buruzkoa, eta horren erregelamendua (Indarrean: 1957ko ekainak 8ko EZL eta 1958ko azaroak 14ko erregelamendua; Indarrean jartzekoa: 8/2011 Legea, uztailak 27koa)
- Elkarteei buruzkoa (EAE: 7/2007, ekainak 22)
- Fundazioei buruzkoa (Estatukoa: 50/2002, abenduak 26; EAE 12/1994, ekainak 17)
- Sexu marka Erregistro Zibilean aldatzeari buruzkoa (3/2007, martxoak 3)
- Enbrioien Dohaintzari buruzkoa
- Giza Organoen Dohaintzari buruzkoa
- Gaixoaren Eskubideei buruzkoa (Euskal legea 7/2002, abenduak 12)
- Prozedura Zibilar buruzkoa (1/2000, urtarrilak 7)
- Lagundutako Giza Ugaltze Teknikei buruzkoa (14/2006, maiatzak 26)

Aldizkari juridikoak

Euskaraz:

-Eleria (Euskal Legelarien Aldizkaria

<http://www.eusko-ikaskuntza.org/es/publicaciones/colecciones/elera>





Gaztelera:

- Actualidad Civil
- Actualidad Jurídica Aranzadi
- Anales de la Academia Matritense del Notariado
- Anuario de Derecho Civil
- Aranzadi Civil
- Cuadernos Cívitas de Jurisprudencia Civil
- Derecho Privado y Constitución
- InDret (Revista para el Análisis del Derecho)
- La Ley
- La Notaría
- Revista Crítica de Derecho Inmobiliario
- Revista de Derecho Patrimonial
- Revista de Derecho de Familia: Doctrina, Jurisprudencia, Legislación
- Revista de Derecho Privado
- Revista General de Legislación y Jurisprudencia
- Revista Jurídica del Notariado
- Revista Jurídica de Cataluña
- Revista Jurídica de Navarra

Euskarri didaktikoen atalarekin bukatzeko, garrantzitsua da azpimarratzea irakasgai honetan EHUK indarrean dauzkan **PLATAFORMA BIRTUALAK** erabili egiten direla. Orain arte EKASI eta, hemendik aurrera, EHUren erabakia dela eta, MOODLE. Plataforma hauek erabiliko dira, irakaskuntza berrikuntzaren ereduari jarraiki, hurrengo helburuetarako, batik bat:

- **Astero ikasleek egin beharreko unitate didaktikoak eskegitzeko, ikasleek deskarga eta inprima ditzaten**
- **Erreferentzia bibliografiko interesagarriak eskegitzeko**
- **Foroak aktibatzen eta, hala, ikasleen parte hartzea sustatzeko**
- **Ikasmateriala eta eskemak eskegitzeko**
- **Egutegia eta kronograma eskegitzeko**
- **Ikasleei mezu kolektiboak bidaltzeko**

Azken finean, irakasle-ikasleen arteko kontaktua areagotzeko eta modu komunean egiteko balio duen baliabidea da plataforma birtualena. Bertan elkar-puntua sortzen da eta orotariko materiala eskegitzen da, ikasleek abilitatez erabiltzen duten mekanismoa aprobetxatuz.





Irakasgaiari atxikitzen zaizkion ikasketa-helburuak eta aipatu euskarri didaktikoen bidez haiek lortzea

Gogoratu nahi dugu berriz, atal honetan, gure ikasketa-prozesuaren helmuga zein den, lehenengo mailako lehen lauhilabetekoan jorratzen dugun Zuzenbide zibila I irakasgaiarekin lortu nahi diren helburuak eta emaitzak hemen plazaratuz:

H1.-Garrantzi juridikoa duten suposamenduak identifikatzea.

H2.-Kasu zehatzari aplikagarri zaion araudia aukeratu, ulertu eta erabiltzea.

H3.-Irakasgaiari dagokion oinarrizko jurisprudentzia eta bibliografia aurkitzen jakitea.

H4.-Irakasgaiari jorratzen diren kontzeptu juridikoak ezagutzea eta egoki erabiltzea.

H5.-Kasu zehatza ebazteko orduan aukera ezberdinak aztertzea, argudiatzea eta, hauetatik, konponbide zuzenena aurkitzea.

H6.-Lanak argitasunez azaltzea, ahoz zein idatziz, eta terminologia juridikoa egoki erabiliz.

H7.-Talde-lanean parte hartzea, jarrera dinamikoa eta positiboa erakutsiz.

Aurreko esperientzien balorazioa aztertzerakoan ikusi ahal izango dugun bezala, zalantzarik gabe, irakasgai honetan proposatzen den irakaskuntza-prozesuarekin helburuak lortu egiten dira. Euskarri didaktikoen bat egiten dute helburuok:

- ✚ **Garrantzi juridikoa duten suposamenduak identifikatzea:** Ariketa askotan lantzen dute ikasleek helburu hau. Orotariko unitate didaktikoak jorratzerakoan garrantzi juridikoa duten hipotesi eta suposamenduak argi ikusteko gai dira lauhilabetekoan zehar. Erabiltzen den metodologiak helburu hau erabat sakontzen du. Lege-testuak, artikulua, sareko informazioa, eskuliburuak, eskemak, laburpenak, kontraste





ariketak (...). Denak daude prest dimentsio juridikoa duten kontzeptuak eta hipotesiak lantzeko, eranskinetan ikusi ahal izango dugun bezala.

- ✚ **Kasu zehatzari aplikagarri zaion araudia aukeratu, ulertu eta erabiltzea:** Problema eta ariketa praktikoak dira, Problemetan Oinarritutako Irakaskuntza metodologia aktiboaren oinarri diren heinean, helburu hau betetzen gehien laguntzen dutenak, dudarik gabe. Malenen bizitzarekin planteatu dugun probleman argi ikus dezakegu hori. Protagonistaren bizitzan zehar garrantzi juridikoa duten eremuak agertzen dira. Beste batzuek, aldiz, ez dute dimentsio hori, nahitaez. Dimentsio juridikoa duten arazoak ebazteko, horiek ulertu eta, beraz, problema kokatuta, aplikagarria suertatzen zaion araudia aukeratu eta egoki erabiltzen ikasten dute. Ariketa guzti horiek talde txikietan jorratzen dira eta, gainera, gero, talde handian. Sakontzen dute euren kabuz eta gero klasean zalantzak eta arazoak ebazten ditugu. Sistemak benetan ahalbidetzen du ikasleek ondo ulertu eta ikastea, eta, batez ere, euren autonomia eta izpiritu kritikoa areagotzea. Euren kabuz pentsatzea eta soluziobideak aurkitzeko errekurtsioak biderkatzea.
- ✚ **Irakasgaiari dagokion oinarrizko jurisprudentzia eta bibliografia aurkitzen jakitea:** Euskarri didaktikoak aztertzerakoan esan dugun bezala, berariazko ariketak daude planteatuta gure metodologian ikasleek epaiak eta informazio iturriak bilatu eta aurkitzeko. Zuzeneko ariketak dira horiek. Beste batzuetan, aldiz, zuzeneko ariketak ez diren arren, zeharkakoetan ere lan hori jorratu behar dute ikasleek. Beraz, helburu hau maila onarekin lortzen dela azpimarratu beharra dago. Moduluaren helburua ere bada, beraz, beste irakasgaietan ere landu egiten dute ikasleek. Helburu transbertsala dela esan genezake, diziplinanitzekoa, alegia.
- ✚ **Irakasgaien jorratzen diren kontzeptu juridikoak ezagutzea eta egoki erabiltzea:** Hori ere bada Problemetan Oinarritutako Irakaskuntza metodologia aktiboaren zutabetariko bat. Problema eta ariketa praktikoak egiteko ikasleek ondo ulertu behar dute galdetzen zaiena, arazoak planteatzen duena. Ulertu gabe ezin soluziobidea planteatu. Ezin kasua ebatzi. Terminologia ariketak ere egiten ditugu, definizioak landu eta kontraste ariketa laburrak ere. Zuzenean jorratzen da helburu honetara garamatzen bidea, eranskinetan ikusi ahal izango dugun bezala.





- ✚ **Kasu zehatza ebazteko orduan aukera ezberdinak aztertzea, argudiatzea eta, hauetatik, konponbide zuzenena aurkitzea:** Euskarri juridikoa erabiltzea gauza bat da eta bertan jasotzen den aukera aniztasuna balioetsi eta argudiatzea beste bat. Lehenengoak trebetasun bat adierazten du (H2) eta besteak ezberdin bat (H5). Behin euskarria ondo erabiltzen dakigula, hark eskaintzen dituen sakoneko aukerak balioesten ikasi behar da ere. Daukadan arazoari eskaintzen zaizkidan aukeretatik zein aplikatu. Hori egiten ohitu egiten dira gure irakasgaietan planteatzen zaizkien problemak ebazterakoan. Halabarrez lantzen dute helburua, problemetan oinarritutako irakaskuntzak hori galdatzen duelako, batik bat. Talde txikietan jorratzen dute lehenengo euren kabuz eta gero talde handian. Beraz, euren lana kontrastatu egiten dute beste taldeek egindakoarekin eta irakaslearen iritzia ere entzuten dute. Ikasten dute, halaber, zuzenbide zibilean batzuetan erantzun zuzena ez dela bakarria. Eurentzat hartzen dutena egokiena dela argudiatu behar dute. Idatzizko komunikazioa zein ahozkoa lantzen da hemen ere zeharka, gure ariketa ia guztietan bezala.
- ✚ **Lanak argitasunez azaltzea, ahoz zein idatziz, eta terminologia juridikoa egoki erabiliz:** Esan bezala, ariketa ia guztietan lantzen da helburu hau gure irakaskuntza-prozesuaren diseinuan. Ariketa gehienek idatzizko aurkezpen bat suposatzen dute, garatua edo sintetikoa. Ahozko aurkezpenetan, berriz, ikasle guztiek lantzen dute (banaka, eta batzuetan taldeka ere) trebetasun hori. Publikoaren aurrean norbere iritzia plazaratzea eta entzuleen aldetik ñabardurak jasotzea. Terminologia beti zuzentzen zaie, egokia erabili dezaten. Beste ariketa mordo batek lantzen du, hain zuzen, afera terminologikoa. Ikus, bestela, ariketen zerrenda eta bakoitzaren bertute kopurua.
- ✚ **Talde-lanean parte hartzea, jarrera dinamikoa eta positiboa erakutsiz:** Honako hau, hain zuzen, gida honetan proposatzen eta azaltzen den irakaskuntza-metodologiaren ardatza da. Kurtso hasieratik sortzen dira talde txiki egonkorak, klasean eta eskoletatik kanpo aritzeko. Berebiziko garrantzia ematen zaio aspektu horri, dudarik gabe. Eta ia egunero jorratzen duten aspektua da gure irakasgaietan. Lortzen diren emaitza bikainen motiboa eta funtsa, nire ustez. Irakaskuntza-prozesuaren sendotasunaren adierazle onena,





zalantzarik gabe. Probatu duenak badaki. Eta ikasleek ere hala onartzen dute.


Ondorioak:

Ikus daitekeenez, oso kontuan ditu gure proposamenak irakasgaiarekin lotuta agertzen diren helburuak. Ikasketa-helburuak sendo jorratzen dira orotariko euskarri didaktikoekin. Ikasketa-helburuak kontuan hartuz diseinatu egiten dira. Gehienek gaitasun bat baino gehiago eta, ondorioz, helburu bat baino gehiago barnebiltzen dituzte. Horrela, helburu aniztasuna bilatuta programatu egiten dira ikasleen jardunak. Helburuen barne-konexioa oso garrantzitsua da proposamen honetan. Ikasketa-helburuak batera lantzen dira, progresiboki eta modu egonkorrean. Astero lantzen dira ia denak eta horrek ahalbidetzen du sistemaren arrakasta, finean.

Helburuok, gainera, bi zutabe dauzkate. Bi filtro, nolabait esateko. Talde txikietan jorratzen dira lehenbizi, oinarrizko gune txikietan. Bertan taldean lan egiteko gaitasuna errotzeaz gain, terminologia, ikerketa (bibliografikoa eta jurisprudentziari dagokiona), kontzeptuen sakontasuna, soluziobideen bilaketa eta aukera ezberdinen hautaketa zuzenean lantzen dute, legetestuak eta bestelako ikasmaterialak euren kabuz landuz. Gero, irakasleari sesioaren hasieran euren lana entregatu ondoren, kopia bat eurentzat gordeta sesioa jarraitzeko, talde handian zuzentzen dira talde txikietan landutako ariketa guztiak. Hala, ikasleen artean *feedback*-a sortzen da. Kontrastatzen dute euren lana besteek egindakoarekin. Berresten dute egindakoa edo zuzentzen dute. Euren buruak neurtzen dituzte eta hobetzeko bideak ere ikus ditzakete. Sistema borobila da.

Jarraikako ebaluazio-sistema






KARPETA

KARPETA OSATZEN DUTEN UNITATE DIDAKTIKO EZBERDINEN BATAZBESTEKO NOTA

+

KARPETA ENTREGATZEKO PUNTUALITATEA ETA FORMA EREMUKO ORIGINALTASUNA (Kalifikazioaren %10)

EBALUAKETA IRIZPIDEAK





1. UNITATE DIDAKTIKOAK, KARPETAK ETA BAKARKAKO PROBAK

UNITATE DIDAKTIKOAK eta BAKARKAKO PROBAK	0-5	5-7	7-8.5	8.5-10
FORMA IDATZIA				
EDUKIEN ZUZENTASUNA				
IDEIEN ETA KONTZEPTUEN ARTEKO HARREMANA				
ARGUMENTAZIOAREN SAKONTASUNA				
KREATIBITATEA ETA ORIJINALTASUNA				
ERABILITAKO MATERIAL ETA EUSKARRIEN ABERASTASUNA				

2. ASISTENTZIA, PARTE HARTZEA ETA AHOZKO AURKEZPENA

- * **KLASERA ASISTENTZIA:** Zerrenda pasako da. Beraz, 10 puntuko kalifikazioan justifikatu gabeko falta bakoitzeko 0.25 puntu kenduko zaizkio ikasleari.
- * **KLASEAN PARTE HARTZEA:** Irakasleak taldeen dinamika aztertuko du klasean dauden bitartean. Norberaren parte hartzea, inizatiba eta taldekideekiko errespetua baloratuko da astero. Baita komunean klasean jorratutako sesioen parte hartzea (10 puntu orotara).
- * **AHOZKO AURKEZPENA:** Ikasle guztiek, lauhilabetekoan zehar, ahozko aurkezpen bat egin beharko dute. Irakasleak 0tik 10era baloratuko ditu aurkezpenok.



Kronograma

Ikasleak kurtso hasieratik ezagutzen ditu gure plangintzari atxikitzen zaizkion egutegia, ordutegiak eta lan-plana. Ikasleen autonomia sustatzea gure helburuetariko bat bada, garrantzitsua da euren buruak antolatzeko tresnak eskaintzea. Ikasleak jakin behar du momentu oro zein den bere lan-karga, taldean egin beharreko jardunak eta bakarkakoak zeintzuk diren, alegia. Euren denbora mugatua da eta horregatik da garrantzitsua ondo antolatzea, denborari ahalik eta etekin handiena ateraz.

Gainera, kontuan hartu behar da gurea ez dela ikasleek duten irakasgai bakarra. Lehenengo lauhilabeteko honetan badaude beste zenbait irakasgai eta horiekin ere koordinatu beharra dago. Irakasleen arteko koordinazioak badu hor bere funtzioa, ikasleen eta irakasleen kexak eta iradokizunak jasotzeko, sistema ahalik eta koherenteen bilakatzeko.

Kronograma taula bat izaten da. Lauhilabeteko guztia jasotzen da bertan, astetan banatua. Astea, gainera, gure irakasgaiak dauzkan bi sesiotan banatua dago. Horrela, ikasleek badakite sesio bakoitzean zer jorratuko den eta nola. Badakite, baita, astero landu behar den unitate didaktikoa zein den eta noiz entregatu behar den. Ahozko aurkezpenak ia astero daude; hauek ere noiz egingo diren zehazten du kronogramak. Eskolatik kanpo eta eskola barruan lantzen dena argitzen da. Frogak noiz dauden eta noiz ez. Argigarria da eurentzat horrelako tresna bat eskura izatea. Denbora antolatzen laguntzen die eta ez zaizkie argibideak astero eman behar. Euren lan ezaren aitzakiari pisua kentzen ere laguntzen du. Heldutasuna lortzen dute, azken finean, eurak baitira ikasketa-prozesuaren jabe, antolatzaile eta protagonista. Irakaslearen funtzioa ezberdina da, sistema honi jarraiki. Askoz gehiago lan egiten dela frogatua dago baina, ikasleei begira, ez du berak lan guztia antolatzen eta egiten. Konplizitatea ere areagotzen da eta sakontasun gehiagorekin tratatu egiten dira gaiak.

Euren jarrera aktibatzea du helburu kronogramak, finean. Badakite lan eskerga handia dela eta hasieratik dakite noizko prestatu behar dituzten lanak. Berebizikoa da inprobisazioari tarte gehiegi ez uztea. Hain sistema borobila lortu nahi bada, ikaslearen inplikazioa berebizikoa da. Konfiantza eremua ere handitu behar da eta eurei esleitu erantzukizunaren portzentaje handiena. Talde txikien martxa eurei dagokie, baita talde handian eginiko sesioen arrakastaren portzentaje handi bat ere. Delegatzea garrantzitsua da sistema honetan, eurei uztea protagonismoa. Irakasleak zuzendu egiten du orkestra baina musika-tresnak eurak dira. Musika eurena da.





V. IRAKASLEAREN ETA IKASLEEN ARTEKO AKORDIOA

Gida honetan luzatzen dugun proposamena gauzatu dadin argi dago irakaslearen eta ikasleen konpromisoak altua behar duela izan. Bakoitzak argi izan behar ditu bete beharrekoak. Baita bere jardunak talde osoaren dinamikan duen pisua:

- ✓ Irakasleak:
 - Lauhilabetekoaren programazioa planifikatzen du
 - Unitate didaktikoak prestatzen ditu
 - Material osagarri egokia hautatzen du
 - Kronograma antolatzen du
 - Talde txikien jarduna astero ebaluatzen du
 - Talde txikiei tutoretza kolektiboak eskaintzen dizkie
 - Talde handiaren nondik norakoa zuzentzen du
 - Ahozko aurkezpenak ebaluatu egiten ditu
 - Bakarkako tutoretzak eskaintzen ditu
 - Bakarkako frogak prestatzen ditu
 - Eztabaidak sustatu egiten ditu
 - Ikasleen parte hartze aktiboa bermatzen saiatzen da
- ✓ Ikasleak:
 - Gida irakurri egiten du
 - Talde txikian jarrera positiboa eta eraikitzailea izatera konprometitzen da, taldean giro ona sortuz eta talde-lanean zuzenki eta aktiboki parte hartuz
 - Talde txikiak bete beharreko lanak puntualtasunez entregatzen dizkiote irakasleari
 - Talde-lanaren ebaluazioak jasotzean hobetzeko konpromisoa hartzen dute, beharrezkoa bada
 - Talde handiko dinamiketan parte hartzeko konpromisoa hartzen du
 - Ahozko aurkezpena ondo prestatzeko konpromisoa bere gain hartzen du
 - Bakarkako froga prestatzen du
 - Ikasmaterial osagarrien bilaketa ondo egiten saiatuko dela egiaztatzen du

Bai irakasleak bai ikasleek, sistemaren arrakasta bermatzeko konpromisoa hartzen dute. Guztion lana da eta guztion erantzukizuna irakasgai honetan proposatzen den ikasketa-prozesua helmugara eramatea, eskuratu beharreko ikasketa-helburuak betez. Jarraikako ebaluaketan oinarritzen den





sistema izaki, lana progresiboa eta egonkorra da: konstantea. Atsedendiak urriak dira, lan eskerge nabarmena, ordea. Lan bolumena handiagoa da baina emaitzak askoz ere hobekak, aurreko esperientziek frogatu duten bezala.

Konpromiso hau **IDATZIZ** jasotzen dute irakasleak eta ikasleak. Hala, **AKORDIO** bat sinatzen dute guztiek aurrean esandakoa bermatzeko saiakera islatzearen, alegia. Akordioak irakaslearen eta ikasle guztien sinadura jasotzen du, konpromisoaren oinarriarekin batera. Nolabait, akordio edo itun honekin indartu egiten da klasearen dinamika ondo irteteko aurreikuspena eta jarrera. Seriotasuna inprimatzen zaio diseinuari. Konfiantza eremu bat sortzen da denon artean. Itunak nolabaiteko ziurtasuna ematen die eta, gainera, protagonismoa ere. Eurek diseinuaren parte garrantzitsu dira, zalantzarik gabe. Eta akordio honek hori islatu nahi du. Ituna dela eta denon esku dagoela finkatutako helburuak lortzea. Eurentzat hau berria da eta orain arteko esperientzian sekulako efektu positiboa eragin duela azpimarratu beharra dago.

VI. AURREKO KURTSOETAN IKASLEEK EMANDAKO BALORAZIOA GURE IRAKASGAIARI ETA GURE IRAKASKUNTZA-PROZESUARI: EMAITZA AKADEMIKOAK ETA EHUKO ZEIN IRAKASLEAK EGINIKO INKESTEN BALIOESPENAK

Proposatzen dugun irakaskuntza-prozesuaren inguruan izandako esperientziak oso onak izan direla aurreratu behar dugu. Ikasleak oso pozik agertu dira sistemarekin, eranskinen atalean jasotzen diren barne eta kanpo inkestetan argi ikus daitekeen bezala. Ikasleek honako aspektu hauek oso positibotzat jo dituzte:

- Ezagupen teorikoak eta praktikoak sakonago barneratu dituzte
- Terminologia detaile handiagoarekin jorratu dute
- Talde-lanean murgildu egin dira, jardun honek dauzkan zailtasunez jabetuz
- Konfiantza giroa nabarmendu dute klasean
- Euren autonomia areagotu da
- Egunerokotasun handiko gaiak jorratu dituzte
- Orotariko euskarri didaktikoekin gustura sentitu dira, orijinalak direla deritzote
- Lauhilabetekoa oso ondo antolatua dagoela uste dute
- Antolaketa horrek euren lana planifikatzen laguntzen die



- Irakaslearekin kontaktua erraza eta arina izan dela nabarmendu dute, hurbiltasuna azpimarratuz
- Jarraikako ebaluazioak euren buruak neurtzen lagundu diela deritzote
- Hizkuntza mailan, ahozko zein idatzizko komunikazioa landu dutela uste dute
- Eskaini zaien ikasmateriala oso egokitzat jo dute
- Orobat, euren prozesua arrakastatsua izan dela sentitzen dute, beste kurtsotan eta irakasgaietan errepika dadin eskatuz

Irakasleak, bere aldetik, lan handia egin duela aitortzen du. Asteroko lana da eta mardula gainera. Unitate didaktiko guztiak zuzentzea lan eskergea astuna eta bolumen handikoa da. Unitate bakoitzak, gainera, badu bere baitan orotariko ariketa mordoa. Beraz, ariketa ugari zuzendu behar dira astero; talde txikien tutoretzak (gehienak emailez); talde handietan jorratu beharreko dinamikak eta eztabaidak; ahozko aurkezpenak bideratu; ebaluazio taulak osatu; kronograma betetzeko beharrezko mugimenduak aurrera eramane (jai egunak eta eskola aldaketak aintzat hartuz, noski); bakarkako tutoretzak; asistentziaren eta parte hartzearen kontrola eramatea. Finean, lan bolumen askoz ere handiagoa, baina fruituak ere ikaragarri hobetuak.

Emaitza hauen isla **hiru planotan** agertzen da:

- **KALIFIKAZIOAK:** Irakasgai honetan, ikasleen gaindituen portzentajea %90-%100 bitartean kokatzen da. Iaz, adibidez, ikasle guztiak gainditu zuten. Sistema hobetzen doan heinean, emaitzak hobegoak dira. Sistemarekin koherenteagoak. Batzuetan, oso gutxitan, portzentaje txiki batek kale egiten du, baina, normalean, sistema jarraitu ez den kasuetan ematen da. Soilik onartzen da, araudiak dion bezala, jarraikako ebaluaketatik hasieratik kanpo geratzea arrazoi bat baldin badago. Hau da, ikasleek ezin badute eskoletara joan justifikatutako motibo bat dela medio. Beste kasuetan primeran funtzionatzen du sistemak.
- **EHU-ko INKESTAK:** Eranskinen atalean ikusi ahal izango den bezala, ikasleek irakaslearen eta irakasgaiaren inguruan lauhilabetekoaren bukaeran bete behar duten galdetegiek ere arrakasta hau islatzen dute. Baremoak 0-tik 5-era izaten dira, hau da, ikasleek tarte horretan ebaluatu behar dute irakasgaia eta irakaslea





bera. Gure emaitzak 4.8-5.0 bitartean egoten dira. Beste froga bat, beraz, sistemaren onuren inguruan.

- **BARNE-INKESTA:** Irakasleak, halaber, ikasleei lauhilabetekoaren bukaeran berak sortutako galdetegi bat betetzeko eskatzen die. Anonimoa da eta boluntarioa, alegia. Denek bete egiten dute eta bertan euren iritzia ematen dute irakasgaiaren inguruan eta sistemari buruz, zehazki. Eurengan sorrarazi dituen onurak aipatzen dituzte, baita gabeziak eta akatsak ere. Hauek ia ez dira agertzen edo oso sinbolikoak izaten dira. Sistemarekin, orobat, oso pozik daude eta ikasketaprozesu honekin bat egiten dutela diote.

VII. AURRETEST

Lehenengo sesioaren bukaeran, sistemaren diseinu osoa azaldu ostean eta akordioa sinatu ondoren –talde txikiak jada sortuak-, irakasleak galdetegi bat betetzeko eskatzen die ikasleei. Irakasgaiaren lauhilabeteko osoan zehar jorratuko dituzten aspektuei buruz galdetzen zaie, edukiei buruz, alegia. Oraindik ezagutzen ez dituzten kontzeptuen esanahia zein den laburki galdetzen zaie (egia edo gezurra erantzutekoak dira galderak). Intuizioz erantzun behar dute ikasleek. Dakitenarekin, zentzumenekin eta intuizioak agintzen dienarekin. Gerora, azken emaitzekin kontrastea egiteko balio izaten du, hasieran erantzundakoaren eta gero eskuratutako helburuen arteko alderatzea burutzeko, hain zuzen ere.

Oso oinarritzko galdetegia da eta ikasleak martxan jartzeko balio du. Gutxi gora behera irakasgaiaren muina nondik nora doan ikusi ahal izaten dute eta horrek hasierako gertutasuna ere eskaintzen digu. Lehenengo sesioa oso oparoa izaten da sistema honetan. Ez da aurkezpen soila. Oinarri sendoak finkatzen dira hurrengo hilabetetarako eta ikasleak lanaren tamainaz kontzientzia hartzen du. Garrantzitsua da, beraz, ondo bukatzea eta sesioari osotasuna ematea. Sistema honetan detaile guztiak zaintzen saiatzen gara, erosotasunez jardun dezagun irakasgai osoan zehar.



ERANSKINAK





ERANSKINEN AURKIBIDEA

ERANSKIN I: Euskarri didaktikoak

- **Unitate didaktikoa 2 (programaren lehenengo atala)**
- **Unitate didaktikoa 9 (programaren bigarren atala)**
- **Unitate didaktikoa 18 (programaren hirugarren atala)**
- **Puzzle sistema (unitate didaktikoa 1)**
- **Gai guztien euskarri didaktikoen barne-gida**

ERANSKIN II: Kronograma

ERANSKIN III: Irakasle-ikasle arteko akordioa

ERANSKIN IV: Aurreko urteetako esperientziaren balorazioak

ERANSKIN V: Aurrettest



ERANSKIN I





UNITATE DIDAKTIKOA 2



ETXERAKO LANA

Taldeak liburukiaren lehengo gaiaren bigarren atala irakurrita ekarriko du. Talde lana da unitate didaktiko honetan garrantzia hartzen duena. Sakon irakurrita gaia, honako fitxa hauek beteko dituzte datorren asterako:

FITXA I

Gaia irakurtzean ulertu ez dituzuen hitzak edo terminoak zeintzuk izan diren jarri eta, hiztegian bilatuta, zein den lortu duzuen esanahia

-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-
-



FITXA II

Gai osoaren laburpen sintetikoa egin behar du taldeak eskaintzen zaion espazio honetan. Ideia nagusiak koherentziaz lotu eta azaldu.



FITXA III

Taldeak segidan planteatzen diren galderak erantzun beharko ditu eskaintzen den espazioa errespetatuz.

1. Zer dira PLANTA BERRIKO DEKRETUAK? Nork eman zituen, zeren kontra eta zertarako? Argudiatu zuen erantzuna.

2. Zer izan zen KODEGINTZA PROZESUA eta zein arrazoik bultzatu eta ahalbidetu zuten?

3. Espainiako Kodegintza: zergatik iraun zuen ia mende oso bat Espainiako Kode zibila aldarrikatzeko bideak?





4. Zeintzuk izan ziren bide horren hiru faseak edo garaiak? Azaldu ezazu laburki bakoitzaren muina.

5. Zein urtetan aldarrikatu zen Espainiako Kode Zibila?

6. Zein da Espainiako Kode zibilaren barne egitura?

7. Zer dira Foru-zuzenbideak eta zein izan zen bere egoera Espainiako 1978ko Konstituzioa aldarrikatu arte?



KLASEAN EGIN BEHARREKO DINAMIKA

Taldeka banatuko dugu zeregina. Etxean prestatutako edukien ahozko aurkezpena egingo du taldeak klasekideen aurrean. Taldeko pertsona batek egingo du aurkezpena. Aurkezpena taldeak nahi duen bezala antolatuko du eta puntuagarria da aurkezlearentzat.

Zein da gaur egungo egoera Espainiako Estatuan Zuzenbide zibilar dagokionez? Zenbat Zuzenbide zibil daude?

TALDE I: Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. artikuluaaren analisia (10 min)


TALDE II: Zenbat interpretazio daude ‘garatu’ hitzaren inguruan? Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 88/93 epaiaren sintesia, Estatuaren posizio ofiziala ezagutzeko (10 min).

TALDE III: Zenbat autonomia erkidegok dute, gaur egun, berezko Zuzenbide zibila eskumen hari jarraiki? Valentziaren kasua (10 min)

TALDE IV: Nola dakigu zein izango den norbanakoei aplikatu behar zaigun Zuzenbide zibila Espainiako nazionalitatea dugunoi? Zein da erabiltzen den konexio puntua eta nola eskuratzen da? (10 min)

TALDE V: Euskal Autonomia Erkidegoko Zuzenbide zibila zein da gaur egun? Nork aldarrikatzen du (10 min)?





UNITATE DIDAKTIKOA 9

IMAZ ZUBIAUR, Leire: *Zuzenbidea ikasten. Irakaskuntzarako aldizkaria*, 1. zb., 2014.1





ARIKETA I: Taldeak klasetik kanpo fitxa hau bete beharko du eskaintzen zaion ikasmateriala ondo ulertuz.

ESKUBIDE SUBJEKTIBOAREN DINAMIKA: ESKURATZEA ETA GALTZEA

1. Legezko eskuratzea eta borondatezko eskuratzea bereizi itzazue adibide bana jarriz.

2. Jatorrizko eskuratzea eta eratorritako eskuratzea bereizi itzazue adibide bana jarriz.



3. Zeintzuk dira eskubide subjektibo bat galtzeko edo iraungitzeko arrazoiak? Jarri adibideak.

4. Uko egitea: Kode zibilaren 6.2 artikulua irakurri eta zuen hitzekin azaldu. Zeintzuk dira eskubide bati uko egiteko legezko mugak? Jarri adibideak mugei dagokionez.

5. Pertsona orok OHORE eta INTIMITATE eskubide subjektiboak dauzka. Nortasunaren eskubideak dira. Uko egin diezaiekegu eskubide horiei? Uko egiteak eskubide horiek galtzea dakar? Zergatik?



6. Pertsona fisiko orok dauka BIZITZEKO ESKUBIDEA. Eskubide horri uko egin diezaioket? Nola? Eutanasia aktiboa zergatik dago Espainiar Estatuan debekatuta?

7. Eskubide subjektiboak denbora igarotzearekin iraungi daitezke. Hemen preskripzioaren eta kaduzidatearen kontzeptuak aztergai ditugu. Zer da preskripzioa eta zer da kaduzidatea. Nola bereizi daitezke?

8. Ematen zaizkizun kasu hauetatik, zeintzuk dira kaduzidatezkoak eta zeintzuk preskripziozkoak?

-Nire zordunari zor didana eskatzeko dudan epea

IMAZ ZUBIAUR, Leire: *Zuzenbidea ikasten. Irakaskuntzarako aldizkaria*, 1. zb., 2014.1





- Ezgai batek burutu duen kontratua desegiteko bere gurasoek duten epea
- Kalte bat eragin didanari kalte-ordaina galdatzeko epea
- Nire alabari egin diodan dohaintza bat errebokatzeke epea
- Niri dagokidan oinordetza bat eskuratzea galdatzeko epea

9. DENBORA NEURTZEA: Zer da konputu naturala eta zer da konputu zibila? Jarri adibide bana.

10. Kode zibilaren 5.1 artikulua irakurri ezazu. Orain erantzun:


- Nola kontatzen dira egunez kontatzen diren epeak?
- Jaiegunak baztertzen al dira?
- Epearen azken eguna kontaktetan sartzen al da?
- Astero kontatzen diren epeak nola kontatzen dira?
- Eta hamabostaldiak?
- Eta hilabeteak, hiruhilabetekoak, sei hilabetekoak eta urteak?

11. Bukatzeko, erantzun galdera hauek epeen kontaktari buruz:

- a) Mikeli otsailaren 24an dirua eman diot maileguan. Biok adostu dugu 9 egunetan bueltatuko didala. Noiz bueltatu behar dit Mikelek dirua?



- b) Jonanek alokairu kontratua sinatu du maizterrarekin, Nerearekin. Martxoaren 25ean sinatu dute ituna. Urte beteko epea jarri dute sinatzen den momentutik. Noiz bukatzen zaio alokairua Jonani?
- c) Erosketa bat egin dut. Prezioa ordaintzeko epetan egitea erabaki dut. Orotara, 4000 euro ordaindu behar ditut. Erosketa uztailaren 18an egin dut. Lehenengo ordainketa handik eta 17 egunetara egin behar dut. Bigarren ordainketa, lehenengoa burutu eta 8 egunetara. Eta hirugarrena, bigarrena egin eta hilabetera. Zeintzuk dira ordainketa data zehatzak. Ez badut ordaintzen azken kopurua, noiztik hasita erreklamatu dezake saltzaileak nire ordainketa? Zein epe mota da, preskripziozkoa ala kaduzidadezkoa?



UNITATE DIDAKTIKOA 18



KLASETIK KANPO JORRATU BEHARREKO TALDE DINAMIKA

GURASO BOTEREA

ARIKETA I: Eskaintzen zaizuen problema ebatzi behar duzue.

PROBLEMA:

Kermanek 16 urte bete ditu 2011ko uztailean. Betidanik ezagutzen duzue, zuen herriko gazte hau. Bere gurasoak Maite eta Joxerra dira. Zazpi urte zituenean jaunartzea egin zuen herriko elizan. Orain gurasoek Kermanek konfirmazioa egin dezan nahi dute. Apuntatu dute ikastaroetara baina Kermanek ez du joan nahi. Ez da sinestuna eta ez du elizarekin harremanik nahi.



ARIKETA II: Eskaintzen zaizuen problema ebatzi behar duzue.

PROBLEMA:

Manexek 9 urte ditu. Bere aitona hil egin da eta testamentuan dena utzi dio Manexi. Amona aspaldi hil egin zen. Aitona Getxon jaio zen eta bizitza osoa bertan eman du. Manexen gurasoek eurentzat diru kopuru handia espero zuten aitonaren testamentuan baina ez da hala izan. Ez daude aitonaren testamentuarekin ados eta epailearengana jo dute. Neurri batean gurasoak lasai daude. Epaileak ondasunak umearentzat badira xedatzen badu, gurasoek uste dute ondasunok eurek administratuko dituztela. Nola babestu daiteke umea prozedura honetan eta sententzia atera eta gero?



ARIKETA III: Eskaintzen zaizuen problema ebatzi behar duzue. Komenigarria da zuen erantzuna babesteko sententziaren bat topatzea eta aipatzea.

PROBLEMA:

Jokinek 17 urte ditu. Dirutxo bat irabazi nahi du eta horretarako, motorra gidatzeko baimena baduenez, Telepizzan lan egiteko aukera balioetsi du. Bertara joan eta bertakoak prest daude hari kontratua egiteko. Jokinek kezka bat du, ordea: nork sinatu behar du kontratua? Gurasoen baimena behar al du kontratua sinatzeko? Irabazitako dirua nork administratuko du: Jokinek ala gurasoek?



ARIKETA IV: Eskaintzen zaizuen problema ebatzi behar duzue. Komenigarria da zuen erantzuna babesteko sententziaren bat topatzea.

PROBLEMA:

Koldo adin txikia da. Egun, 17 urte dauzka eta propaganda banatzen duen enpresa batean egiten du lan. Soldata dauka, bere lanaren truke. Gurasoak, krisi ekonomikoa dela eta, langabezian geratu egin da. Gainera, Koldok bere amonak dohaintzan emandako ondasun ugari dauzka. Behartua al dago Koldo etxean dirua uztera bertan bizi bada? Eta Koldok 24 urte izango balitu eta etxetik kanpo biziko balitz? Xedatu ditzakete Koldoren gurasoek ondasunok? Nola babestuko zenukete Koldoren egoera?



ARIKETA V: Galdera hauei erantzun zehatza emaezue.

1. Zer da, zuen hitzetan, guraso ahala edo guraso boterea?
2. Zer esan nahi dugu botere bat baino funtzio bat dela esaten dugunean?
3. Zer esan nahi dugu guraso ahala utzi ezina, eskualda ezina eta preskribaezina dela esaten dugunean?



4. Nor da guraso boterearen titularra?

5. Posible da gurasoetatik bat edo biak guraso botererik ez izatea? Zein kasutan gerta daiteke hori? Zigor bezala ulertzen duzue ez izate hori? Eskubideak eta betebeharrak dituzte, kasu horietan, seme-alabekiko?

6. Gurasoak banatzen direnean batek galtzen du guraso botere hori? Zergatik?




7. Gurasoak banaturik badaude, nola egikaritzen da guraso boterea? Eta elkarrekin bizi direnean?

8. Zeri deitzen diogu guraso boterea **luzatzea** eta zeri guraso boterea **berrematea**? Jarri adibide bana.

9. Zer gertatzen da guraso boterearekin 11 urteko ume bat adoptatzen badute bere guraso biologikoak ez diren pertsona bik?



10. Zeintzuk dira arlo pertsonalean, seme-alabekiko guraso boterea dutenek dituzten betebeharrak? Betetzen ez badituzte norengana jo daiteke ume horien onura babesteko? Zein neurri jar daitezke? Adibideak jarri itzazue.





UNITATE DIDAKTIKO 1

PUZZLEA

ARIKETA I: Taldeko kide bakoitzak testu bat irakurriko du bakarka (A, B, C edo D letraduna). Behin irakurrita eta ideia garrantzitsuenak aterata, letra berekoak batuko dira beste horrenbeste taldetan. Han testua orraztu ondoren euren taldera itzuli eta beste talde espezializatuan adostutakoa azalduko diete kideei. Azkenik, talde proba ulertze maila ebaluatzeko.

Denborak:

1. Bakarkako irakurketa: 10 min.
2. Letra bereko talde-dinamika: 10 min.
3. Norbere taldeko aurkezpenak: 20 min.
4. Klasean ondorioak eta proba: 15 min.



A TESTUA:

Gaur eguneko ‘Zuzenbide Zibil’ terminoaren esanahia aldatu egin da historian zehar. Jatorrian, arau multzo horren sorburua Zuzenbide erromatarreko *ius civile* delakoa izan zen. *Ius civile*-ak zuzenbide pribatua eta publikoa barnebiltzen zituen erromatarren garaian. Erromatarrentzat, **herri bakoitzak berezko duen Zuzenbidea da *ius civile***. Izan ere, Erromak bere herritarrei bakarrik aplikatzen zien zuzenbide erromatarra; kanpotarrak aldiz, *ius gentium* bitartez gobernatzen ziren.

Erromatarren zuzenbide guztia, publikoa zein pribatua, *Corpus Iuris Civilis* bilduman jaso zuen Justiniano enperadoreak K.O VI. mendean. Hala ere, *Corpus*-ean jasotako bi arau mota horien artean biziraupenik luzeena zuzenbide pribatuari zegozkion arauak izan zuten. Erdi Aroan, Justinianok bildutako zuzenbide erromatarra berreskuratu zen garaian, gizartearen antolamendu politikoa eta administrazioa antzinakoen oso desberdinak ziren. Erromako administrazioa eta egitura politikoa antolatzeke erabili ziren arauak jada ez zuten balio, mendeak igarota zaharkituak baitzeuden. Horregatik, Justinianoren *Corpus*-a aurkitu eta erabili nahi izan zuten juristek zuzenbide pribatuko arauak besterik ezin izan zituzten kopiatu eta erabili. Garai horretan, beraz, *Corpus Iuris Civilis*-aren zati bateko harreraren ondorioz, **zuzenbide pribatuarekin berdindu zen *ius civile* delakoa**.





Aipatutako zuzenbide erromatarraren harrerarekin batera, Zuzenbide kanonikoak eragin handia izan zuen Erdi Aroko arautegietan. Biek osatu zuten *Ius Commune* edo Zuzenbide komuna delakoa. Hau da Erdi Aroan gailendu zen arau multzo osoa: ERROMATARRA eta KANONIKOA. Hala, *Corpus Iuris Canonici* eta *Corpus Iuris Civilis* delakoen harrera Italian hasi zen, Frantziara zabaldu zen ondoren eta handik Alemania, Espainia, Polonia eta beste herrialde batzuetara hedatu zen; Ingalaterra, Eskandinavia eta Herri Eslaviarrak, berriz, eragin horretatik kanpo geratu ziren. Edonola ere, Espainian, ez zen leku guztietan berdin hartu zuzenbide erromatarra. Zuzenbide Komunaren eragina tokian tokikoa izan zen: Katalunian eta Mallorcan oso sakonekoa; Gaztela eta Valentzian, garrantzitsua izanagatik ere, azalekoagoa izan zen; Aragoi eta Euskal Herrian aldiz, oso txikia. Harreraren bitartekoei dagokienez, eta beste herrialde batzuetan gertatu legez, **sortu berriak ziren Unibertsitateen bitartez sartu zen zuzenbide erromatarra eta kanonikoa Espainian:** Palentzia, Salamanca, Sevilla, Valladolid eta Alcala-ko zentroak izan ziren zeregin horretan esanguratsuenak. Agintarientzat, Zuzenbide erromatarraren harrera-prozesuaren helburu politiko-juridikoa Europako herrialdeen zuzenbidea **BATERATZEA** izan zen. Zuzenbide berbera denontzat: inolako ezberdintasunik eta berezitasunik gabe.

Aro Modernoan (XVI. mendetik aurrera), estatuak indartzearekin bat, bateratze-prozesuaren alderantzizko joera sortzen da. Estatuak berezko protagonismoa nahi izango dute eta berezko ordenamendu juridikoa izan, alegia. Ezberdina. Bestalde, Erreforma protestanteak Europaren batasun espirituala haustearekin bat, Zuzenbide Kanonikoaren gainbehera hasi zen. Testuinguru berri horretan lurralde bakoitzaren zuzenbide propioak sendotu egin ziren, Zuzenbide Komunaren kaltetan. Estatuak beren egitura eta boterea bermatu ahala (XVII. mendearen bigarren erditik XVIII. mendearen amaiera arte) antolamendu juridiko propioek betetzen dute apurka Zuzenbide Komunaren lekua. Antolamendu horietan mota askotako arauak aldarrikatuko dira: administrazio, prozedurazko eta zigor arlokoak (PUBLIKOAK) eta bestelakoak (PRIBATUAK). Azken multzo honetan kokatuko da Zuzenbide zibila estatu modernoetan, XIX. mendeko kodegintza prozesuak argi islatu zuen bezala. Orain arteko guztia labur esanda: Zuzenbide Zibilari gaur egun duen itxura emango diona **Zuzenbide Komunarekiko eta Zuzenbide Publikoarekiko bereizketa**-prozesua bera izango da.

B TESTUA:

Gaur egun Zuzenbide publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketari gauza normala irizten badiogu ere, bereizketa hori nahiko berria da berez. XII. mendean agertzen da lehen aldiz, DOMAT jurista frantsesaren idatzietan.

Bien arteko bereizketa zertan datzan azaltzea ez da erraza. Eztabaida ugari sortu da auzi horren inguruan, legeak ez baitu esaten zertan bereizten diren Zuzenbide publikoa eta pribatua, eta doktrinak, berriz, irizpide bat baino gehiago erabili izan du, denak ere nola-halakoak, ez baitira auzia behin betirako ebazteko gai.

Irizpide nagusiak zein diren azalduko dugu jarraian, baina kontuan izan bedi guztiek ere bereizketa garbi azaltzeko arazoak dituztela.

1. Zuzenbide publikoan arau **inperatiboak** dira nagusi, eta Zuzenbide pribatuan, berriz, **xedapenezkoak**. Bereizketa hori, ordea, ez da guztiz egiazkoa, Zuzenbide pribatuan ezinbestean bete beharreko arau ugari baitago.





2. Zuzenbide pribatuak **pertsona pribatuen** arteko harreman juridikoak arautzen ditu. Hori ez da beti horrela izaten, ordea. Egun enpresa publiko asko dago trafiko juridiko pribatuan aritzen dena eta Zuzenbide pribatuko araukin funtzionatzen duena.

3. Zuzenbide publikoak **interes orokorra** zaintzen du, eta pribatuak, aldiz, pribatua edo partikularra. Ikuspegi hori nahiko herren geratzen da; izan ere, Zuzenbide pribatuko arauk ez dute interes partikularra bakarrik asetzen, orobat Zuzenbidearen arauk, baita Zuzenbide pribatukoek ere, interes orokorra baitute abiapuntu eta azken xede (EK 1.1 artikulua).

4. Zuzenbide pribatuak arautzen dituen egoera eta harreman juridikoetan **berdintasun** mailan daude alderdiak; Zuzenbide publikoan, aitzitik, alderdietako batek, Administrazioak hain zuzen, *imperium*-arekin jokatzeko du. Hori ere ez da egia biribila; izan ere, trafiko juridiko pribatuan aritzen diren alderdiak ez daude elkarren arteko berdintasun-egoeran; pentsatu, esate baterako, masan egiten diren kontsumo munduko kontratuetan.

Bukatzeko, hau esan daiteke: aipatutako irizpideak banan-banan hartuta bereizketa oinarrizko hori azaltzeko gauza ez badira ere, guztiak batera hartuz gero, nahiko argi agertzen dela Zuzenbide pribatuaren eta publikoaren arteko desberdintasuna zertan datzan.

C TESTUA:

Zertaz arduratzen da Zuzenbide Zibila? Zuzenbide Zibilaren ardatzak bi dira: **pertsona** eta **ondarea**.

Lehenik eta behin, pertsonaren nortasuna zaintzen du Zuzenbide Zibilak. Alegia, **nortasunaren eskubideez** baliatzeko aukera ematen dio pertsona fisikoari: pertsonaren bizia, osotasun fisikoa, genoma, intimitatea, ohorea, irudia, eta horrelakoak babesten ditu. Oinarrizko eskubide horiek, ordea, ez daude Kode Zibilean jasota, Konstituzioan eta lege berezietan baizik; izan ere, Kodea indarrean sartu zen garaian ez zegoen halako eskubideen gaineko kontzientziarik.

Pertsonaren eremuari gagozkiola, Kode Zibilak **gaitasun juridikoari** buruzko arauak ezartzen ditu: jarduteko gaitasuna, gaitasungabetzea, gaitasun-gabearen ordezkioak, babes-erakundeak eta abar.





Pertsonak besteekiko dituen harreman juridikoak direla eta hainbat eremu arautzen ditu Zuzenbide Zibilak. Hurbilenekotik hasita, **familiako eremuari** buruzkoak arautzen ditu: bikotearen arteko harremanak (ezkontza, ezkondu gabeko bikote egonkorrak, dibortzioa, eta abar), eta guraso eta seme-alaben artekoak (seme-alabatasuna eta guraso boterea). Familiaren eremuari dagokionez, kontuan izan behar dira ere ezkondu gabeko bikoteen gaineko legeak (Euskal Legebiltzarreko 2/2003 Legea) eta giza ugaltze artifizialari buruzko legea (Estatuko 14/2006) Legea).

Familiari lotuta, baina ondare-kutsu handiagoaz, pertsona ardatz gisa duen bigarren eremuan sar daitezke **ezkontideen arteko ondare-harremanak** eta **oinordetza**-arauak. Familiarteko mugetatik urrunago, beste pertsonetikiko harremanei dagokienez, beste bi eremu irekitzen dira: ondarea eta kontratuzko harremanak. Pertsonaren ondarearen barruan aztertzen dira ere **eskubide errealak** (jabe izatea eta gainerako eskubide erreal mugatuak). Amaitzeko, pertsonen arteko harremanen moldea ezartzen duen Kode Zibilaren atal bat aipatu behar da: **Kontratu edo Obligazio Zuzenbidea**, hain zuzen.

D TESTUA:

Egungo Zuzenbide Zibila, Espainiar Estatuan, anitza da. Hurrengo irakasgaiari jorratuko dugun bezala, badira autonomia erkidego batzuk berezko Zuzenbide zibila dutenak: Valentzia, Aragoi, Katalunia, Balear Uharteak, Galizia, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa. Lurralde hauetan, beraz, berezko Zuzenbide zibila aplikatuko da lehenetsunez; arau autonomikorik ez dagoen kasuetan edo eta estatuko arauak derrigorrezkoak diren supostuetan, aldiz, Estatuko Zuzenbide zibila aplikatuko da.

Espainiar Estatuko Zuzenbide zibila, nagusiki, 1889. urteko Kode zibilean dago. Datorren irakasgaiari jorratuko dugu Espainiako Kode zibila aldarrikatzeko gauzatu zen prozesu osoa eta lege testu horren edukia eta egitura. Hala ere, Kode zibila ez da Estatuko Zuzenbide zibila jasotzen duen lege testu bakarra. Ez horixe. Ehunka Lege berezi daude Zuzenbide zibileko eremu ezberdinak arautzeko [Jabetza Intelektuala, Jabetza Horizontala, Datuen





Babesa, Lagundutako Giza Ugalketa, Jabetza Horizontala, Hiri Errentamenduen Legea, Erregistro Zibileko Legea, Hipoteka Legea...]. Horregatik, egungo egoerari begira, doktrinaren gehiengoak uste du XIX. mendetik jasotako Zuzenbide zibilaren ereduak krisian dagoela. Krisi horren adierazpenak askotarikoak badira ere, nagusiak honako hauek lirarteko: **deskodetzea, edukiak galtzea eta publikotzea.**

-Deskodetzeari dagokionez, esan dugun bezala, XIX. mendeaz geroztik Kode zibilak aurreikusten ez zituen egoera berriei erantzuteko lege berezi ugari aldarrikatu da. Arau horiek Kode zibilaren barrura ekarri beharrez, lege “solte” moduan kaleratu izan dira, Kode zibiletik kanpo, beraz, eta haren antolamendura egokitu gabe. Lege berezi horiek ugaritu egin diren heinean, Kode zibilaren balioa eta nagusitasuna murriztu egin da.

-XIX. mendeko Kodeek balioa galtzeko beste arrazoi bat gizartearen aldaketa izan da. Kodeek estatu liberal-burgesaren beharrei erantzuten dioten neurrian, eta gizartea XIX. mendeko ideario hartatik urrundu ahala, Kodearen erantzunen balioa gero eta txikiagoa da. Bestalde, Kodearen arauak ezin diote teknologia berrien bilakaerak eta egitura ekonomikoen aldaketak sortutako arazoei erantzunik eman. Aipatutako oinarri ideologiko eta ekonomiko berriei erantzuteko arau multzo berezituak sortu dira. Ez bakarrik Kodeetik at, Zuzenbide zibiletik kanpo ere garatu dira, eta **Kodeari edukia kentzen** diote. Hurrenez hurren, Merkataritza zuzenbidea sortu zen lehenik, Lan zuzenbidea haren ondotik, Nekazaritzako zuzenbidea gerora, eta haren atzetik Hirigintzako zuzenbidea, industriaren trafikoa arautzen duen zuzenbidea, eta beste zenbait.

-Zuzenbide Zibilaren **publikotze**-prozesua aipatuko dugu azkenik. Izen hori eman dio doktrinak eskuarki eremu pribatukoak izan diren arauetan Zuzenbide publikoa oldartzeari. Urak, meategiak, mendiak, hirigintza..., garai batean Zuzenbide zibilak araututako gaiak, Administrazio Zuzenbideak arautzen ditu orain. Publikotze-prozesu horren arrazoiak lehen aipatu ditugunak berak dira: batik bat, ongizate-estatuaren sorrera eta horri lotutako autonomia pribatuaren eremua murriztea. Botere publikoen esku hartzea nabarmenagoa da.

Hala ere, aitortu beharra dago 1978ko Espainiako Konstituzioak eragin nabarmena izan duela Kode Zibilaren arau askotan. Kontuan izan behar da arau-hierarkiaren printzipioaren arabera Konstituzioa dela arau gorena; gainerako arau guztiak haren mende daude, Kode zibila barne. Ondorioz, Kode Zibila nahiz beste ezein arau interpretatu eta aplikatzeko kontuan izan behar da Espainiako Konstituzioak esaten duena, eta interpretazio horrek ezingo du Konstituzioaren, ez eta printzipio orokorren, aurkakoa izan. Ondorioz, Kode Zibilaren arauak eta baita hura eratzen duten printzipioak ere **Konstituzioaren argitan** irakurri eta interpretatu behar dira. Bestalde, 1978ko Konstituzioaren eragina nabari da, halaber, Kode zibila egokitzeko egin diren hainbat erreforma-legetan [gizon eta emakumeen arteko berdintasuna; dibortzioa; sexu berekoen arteko ezkontza; transexualitatea; guraso-ahala ...].

Bukatzeko, Zuzenbide zibila **Zuzenbide pribatu orokorra** dela esan ohi da. Zer esan nahi du, bada, **orokor** izateak? Lehenik eta behin, esan beharra dago Zuzenbide zibilak ez duela Zuzenbide pribatu osoa barne hartzen. Zuzenbide zibilaz gain, Zuzenbide pribatua hauek osatzen dute: *Merkataritza Zuzenbideak*, *Lan Zuzenbideak* eta abarrek. Zuzenbide zibila, beraz, Zuzenbide pribatuaren zati bat besterik ez da, baina ez nola-halako zatia, zati kualifikatua baizik. Dakigunez, bilakaera historikoaren ondorioz Zuzenbide zibilaren jatorriko enborretik hainbat adar sortu izan da, eta gerora Zuzenbide pribatua osatuko zuten. Adar berezi horiek hainbat gauza zor diote jatorrizko Zuzenbide zibilari: printzipio komunak eta





interpretazio-arau nagusi batzuk, batez ere. Hori dela eta, Kode Zibilak dio (4.3. artikuluan) Zuzenbide zibila beste horien **ordezko** izango dela; beste horietan hutsunerik badago, Zuzenbide zibileko arauak aplikatu beharko direla, alegia. Horregatik esaten da, hain zuzen ere, Zuzenbide zibila orokorra dela. Bestalde, kontuan izan behar da, halaber, Zuzenbide zibila **guztiori aplikatzen zaigula** pertsona fisiko garen heinean, Lan Zuzenbidea edo Merkataritza Zuzenbidea, aldiz, langileei eta merkatariei baino ez zaie aplikatzen. Ikuspegi horretatik ere, Zuzenbide zibila orokorragoa da aipatutako beste biak baino.

ULERMEN PROBA

1. Administrazio Zuzenbidea:
 - a. Zuzenbide publikoa da
 - b. Zuzenbide pribatua da
2. Zigor Zuzenbidea:
 - a. Zuzenbide publikoa da
 - b. Zuzenbide pribatua da
3. Zuzenbide zibila:
 - a. Zuzenbide publikoa da



- b. Zuzenbide pribatua da
- 4. Nazioarteko Zuzenbidea:
 - a. Zuzenbide pribatua da
 - b. Zuzenbide publikoa da
 - c. Publikoa zein pribatua izan daiteke
- 5. Finantza Zuzenbidea:
 - a. Zuzenbide publikoa da
 - b. Zuzenbide pribatua da
- 6. Merkataritza Zuzenbidea:
 - a. Zuzenbide publikoa da
 - b. Zuzenbide pribatua da
- 7. Zeintzuk dira Zuzenbide zibilak barnebiltzen dituen irakasgaiak graduan zehar?
 - a. Pertsonaren Zuzenbidea
 - b. Eskubide errealak
 - c. Oinordetza Zuzenbidea
 - d. Gauzen Zuzenbidea
 - e. Obligazioak eta kontratuak
 - f. Familia Zuzenbidea
 - g. Zuzenbidearen historia
 - h. Zuzenbidearen filosofia
 - i. Ekonomia
 - j. Finantza Zuzenbidea
 - k. Merkataritza Zuzenbidea
- 8. Zein BI ELEMENTUK osatu zuten Erdi Aroan ZUZENBIDE KOMUNA? Zein izan zen europar agintariak eman zioten funtzioa edo harekin lotu nahi izan zuten helburua?
- 9. Zer esan nahi dugu Zuzenbide zibila OROKORRA dela esaten dugunean?
- 10. Zein lege testuren argira interpretatu behar da egun indarrean dagoen Zuzenbide zibila?



GAIAK	MATERIAL OSAGARRIA
ZUZENBIDE ZIBILA	-UD1
ZUZENBIDE ZIBIL ANITZ	-UD2 -UD3 -“Euskal Herriko Zuzenbide zibilen garapena” -EKAE 2010 Kataluniako estatutua -EKAE 88/93 -EKAE 121/92

IMAZ ZUBIAUR, Leire: *Zuzenbidea ikasten. Irakaskuntzarako aldizkaria*, 1. zb., 2014.1





	-Kataluniako autonomia estatutua
Z. ZIBILAREN ITURRIAK	-UD4 -UD5
ARAU ZIBILEN INTERPRETAZIOA, APLIKAZIOA, ERAGINKORTASUNA	-UD6 -UD7 -Wikipedia txostenak
HARREMAN JURIDIKOA ETA ESKUBIDE SUBJEKTIBOA	-UD8 -UD9 -UD10 -UD11 -EAGE 1984ko maiatzaren 28koa (Eskubide abusua) -EAGE 1944ko otsailaren 14koa
NORTASUNAREN ESKUBIDEAK	-UD12 -Lege organikoa 1/1982, maiatzaren 5koa, Ohorearen, Intimitatearen eta Irudiaren babes zibilari buruzkoa -EAGEk ohorea, intimitatea eta irudiari buruzkoak (4) -Lege organikoa, 2/2010, martxoaren 3koa, sexu-osasunari eta abortuari buruzkoa -Lege organikoa, 15/1999, abenduaren 13koa, datu pertsonalen babesari buruzkoa -EAEko 7/2002 Legea, abenduaren 12koa, gaixoaren aurretiazko borondateari buruzkoa -EKAE 154/2002 Jehová -EKAE 120/1990 Grapo -EKAE 89/1989, Bazkun profesionalak -14/2006 Legea, maiatzaren 26koa, lagundutako giza ugalketari buruzkoa -EZL eta EZE (izenak eta abizenak: lege zaharra eta berria)
NORTASUNA	-UD13 -Kataluniako 25/2010 Legea, Kataluniako Kode zibilaren bigarren liburua, pertsona eta familiari buruzkoa -EZL 2011 (Kode zibilean eragiten duen aldaketa)
ERREGISTRO ZIBILA	-UD14 -UD15 -Transexualitatea: Arartekoaren txostena -2007ko Sexu marka erregistro zibilean aldatzeari buruzkoa -Sareko informazioa: TRANS kolektiboak -EAEko 2/2003, maiatzaren 7ko Legea, izatezko bikoteei buruzkoa



	-EZL 1957 -EZE 1958 -Enrique Rubioren artikulua -20/2011 Legea, uztailaren 21ekoa, Erregistro Zibilari buruzkoa
ADINA	-UD16
EZGAITASUNA	-UD17 -PZLko 756-763 artikulua
GURASO-AHALA	-UD18 -Kontraste koadroa -1996ko Adin txikia babesteko Lege Organikoa
TUTORETZA	-UD19
KOKAGUNEA	-UD20 -PZLko 2031-2047 artikulua -Kontraste koadroa
PERTSONA JURIDIKOA	-UD21 -UD21bis -UD22 -UD23 -EAEko 12/1994 Legea, ekainaren 17koa, fundazioei buruzkoa -EAEko 7/2007 Legea, elkarteei buruzkoa -EAGE 2002ko irailaren 10ekoa (Alardea) -Alardea: Sareko informazioa -Txokoak: marko juridikoa -EKAE 173/1998 (Euskadiko elkarten legeari buruzkoa) -EAEko JANko 496/2002 epaia (Alardea)



ERANSKIN II





IV. Irakaskuntza berrikuntza

UNITATE DIDAKTIKOEN KRONOGRAMA

KLASE EGUNAK	UNITATE DIDAKTIKOAK	AHOZKO AURKEZPENAK	BAKARRAKAKO PROBAK	KARPETEN ENTREGA
Irailak 15	Aurkezpena eta taldeak osatzea + aurre-test	EZ	EZ	EZ
Irailak 16	UD1+TALDE PROBA	EZ	EZ	EZ
<i>Etxerako lana</i>	UD2+UD3	-	-	-
Irailak 22	UD2	BAI (5)	EZ	EZ
Irailak 23	UD3	-	EZ	EZ
<i>Etxerako lana</i>	UD4+UD5	-	-	-
Irailak 29	UD4	BAI (2)	-	-
Irailak 30	UD5	BAI (2)	-	-
<i>Etxerako lana</i>	-	-	-	-
Urriak 6	UD7+TALDE PROBA	BAI (1)	-	-
Urriak 7	BAKARRAKAKO PROBA	-	BAI [ordu bat eta erdi]	<u>BAI [KARPETA I]</u>
<i>Etxerako lana</i>	UD8+UD9	-	-	-
Urriak 13	UD8+UD9	BAI (4)	-	-
Urriak 14	UD10	BAI (2)	-	-



IV. Irakaskuntza berrikuntza





Etxerako lana	UD11+UD12	-	-	-
Urriak 20	UD11	BAI (2)		
Urriak 21	UD11	BAI (2)		
Etxerako lana	-	-		-
Urriak 27	UD12	BAI (5)		
Urriak 28	UD12	BAI (3)	BAI	BAI [KARPETA II]
Etxerako lana	UD13+UD14	-	-	-
Azaroak 3	UD13	-	-	-
Azaroak 4	UD14	-	-	-
Etxerako lana	UD15	-	-	-
Azaroak 10	UD15	(2)	-	-
	UD16	-	-	-
Azaroak 11	UD17+TALDE PROBA	-	-	-
Etxerako lana	UD18+UD19	-	-	-
Azaroak 17	UD18	BAI (3)		
Azaroak 18	-	-		-
Etxerako lana	-	-	-	-
Azaroak 24	UD19	BAI (4)	-	-
Azaroak 25	UD20+TALDE PROBA	-	-	-

IV. Irakaskuntza berrikuntza





<i>Etxerako lana</i>	UD21	-	-	-
Abenduak 1	-	-	-	-
Abenduak 2	-	-	-	-
<i>Etxerako lana</i>	-	-	-	-
Abenduak 9	BAI (5)	-	-	-
<i>Etxerako lana</i>	-	-	-	-
Abenduak 15	BAKARKAKO PROBA	-	BAI	[BAI:KARPETA III]
Abenduak 16	EBALUAKETA: NOTAK ETA INKESTAK	-	-	-





ERANSKIN III



IV. Irakaskuntza berrikuntza





AKORDIOA



IV. Irakaskuntza berrikuntza





IRAKASLE-IKASLE AKORDIOA

IKASLEAK:

Agiri hau sinatzen dugun ikasleok

- A. Irakasleak antolatutako ariketak ahalik eta egokien lantzeko eta aurkezteko konpromisoa hartzen dugu
- B. Taldeak ondo funtzionatzeko behar duen bakarkako jarrera jartzeko konpromisoa hartzen dugu
- C. Lanak taldeka egin eta kalifikazioaren portzentaje altu bat konpartitzeko konpromisoa hartzen dugu
- D. Irakaslearekin tutoretzak beharrezkoak direnean beroiek egiteko konpromisoa hartzen dugu
- E. Taldean arazoak badaude, lehenengo, gure kabuz konpontzeko konpromisoa hartzen dugu
- F. Irakasleak aurkezten digun antolaketa, gida eta ebaluaketa sistema onartzen dugu eta gure partea betetzeko konpromisoa hartzen dugu
- G. Horretarako beharrezkoa den ikasmateriala eta euskarriak bilatzeko konpromisoa hartzen dugu
- H. Irakaslea, taldekideak eta klase-kideak errespetu osoz tratatzeko konpromiso sendoa hartzen dugu

IV. Irakaskuntza berrikuntza





IRAKASLEAK:

- A. Orohar, ikasleei aurkeztutako plana betetzeko konpromisoa hartzen du
- B. Ikasleek behar dutenean, kontsultak atenditzeko konpromisoa hartzen du (posta elektronikoa, telefona edota aurrez-aurreko tutoretza). Posible ez denean momentuan harremanetan jartzea, tarte bilatu eta berau ikasleekin adosteko konpromisoa hartzen du
- C. Unitate didaktikoak ahalik eta argien azaltzeko konpromisoa hartzen du
- D. Ikasleek egindako unitate didaktikoak adostutako irizpideen arabera ebaluatzeko konpromisoa hartzen du
- E. Unitateen eremu teorikoa ondo barneratzeko ikasmaterial egokia emateko konpromisoa hartzen du
- F. Klase dinamikoak, parte hartzaileak eta interaktiboak sustatzeko konpromisoa hartzen du
- G. Ikasleak errespetu osoz tratatzeko konpromiso argia hartzen du, denak berdintasunean

Leire Iwate Zubiaur 2014-15





ERANSKIN IV



IV. Irakaskuntza berrikuntza





Zuzenbide zibila I
Eragin Programa 2011
Leioa, 131 taldea

**IRAKASGAIA LANTZEKO ETA EBALUATZEKO ERABILITAKO SISTEMARI BURUZKO
BARNE-INKESTA**

1. Metodo tradizionalarekin alderatuz, irakasgai honetan erabili den sistemaren abantailak azpimarra itzazu.

Irakasgai honetan erabiltako sistemak abantaila oso dauka. Gauzak hobeto ikasi eta gogoratuko direla uste dut, taldean lan egitea inoizko gara, aurkezpena egiten uste dute erorkizunetan horrelako gauzak oso laster direla eta sakonik urtamila gaitertera eta egiteko aukera izan dugu.

2. Metodo tradizionalarekin alderatuz, irakasgai honetan erabili den sistemaren desabantailak azpimarra itzazu.

Ezin dute desabantailarik aipatu, behar bada esan ahal dudan bakarra lan gogorra egun behar dela, astean taldearekin etxera lana egiteko, gero etxean hobetzen joan...

3. Zein izan da, 100etik, ehuneko portzentaia batez adierazia, irakasgai honetan izan duzun inplikazio orokorra?

Inplikazio orokorra % 81

4. Zein izan da, 100etik, ehuneko portzentaia batez adierazia, talde lanean izan duzun inplikazioa?

Talde inplikazioa % 90

5. Zer da zuretzat talde-lana?

Naheriat talde - lana guztiek hasiera batean lana inplikazioa da, gero etxera bildu lana egiteko (guztien inplikazioa), etxean hobetzen jarraitu eta garrantzitsuenak guztien kolaborazio baxua da.



IV. Irakaskuntza berrikuntza





6. Zure taldeak benetako talde-lana burutu al du?

Bai, nire urte oso lan oso egin dugu eta guzuzak inpletatu gara.

7. Eguneroko bizitzan garrantzitsuak diren gaiak landu dituzu irakasgai honetan?

Bai, oso garrantzitsuak izan dira guzuz eta eguneroko bizitzan aurkezten dituztenak dira.

8. Ebaluaketa sistema gustatu al zaitu? Zergatik?

Bai, oso gustatu zait.

Uste dut irakaskuntza honetako sistema oso burutu duela. Asko ikasi dute eta nahiz eta lan oso egin oso praktik nago irakasgai horien sistemarekin dakidan guztiarekin.

9. Garrantzitsua iruditzen zaizu astero astero zure lanaren balorazio bat jasotzea irakaslearen aldetik? Zergatik?

Bai, lehen esan duzun moduan gogoratu izan da astero balorazio bat edukitzea baina oso efektiboa dela iruditu zait gero aurrekoetarako eta benetako ulermenerako oso garrantzitsua izan da.

10. Sistema honek, ikasteko orduan, autonomoago egin zaituela uste duzu? Zer ikasi duzu? Zer irabazi duzu?

Sistema honetara gurasak benetan olentzen ikastea irabazi dute.

Oso irakasgai interesgarria iruditu zait, benetan.

IV. Irakaskuntza berrikuntza





Zuzenbide zibila I
Eragin Programa 2011
Leioa, 131 taldea

**IRAKASGAIA LANTZEKO ETA EBALUATZEKO ERABILITAKO SISTEMARI BURUZKO
BARNE-INKESTA**

1. Metodo tradizionalarekin alderatuz, irakasgai honetan erabili den sistemaren abantailak azpimarra itzazu.

- Ikasten diren gauzak sakonago ikasten direla.
- Taldeetan epindako lanetan denon artean laguntza gaitzeko.

2. Metodo tradizionalarekin alderatuz, irakasgai honetan erabili den sistemaren desabantailak azpimarra itzazu.

- Batzutan batzuk beste batzuk baino lan gehiago egiten dituzte.

3. Zein izan da, 100etik, ehuneko portzentaia batez adierazia, irakasgaiaren izan duzun inplikazio orokorra?

80%

4. Zein izan da, 100etik, ehuneko portzentaia batez adierazia, talde lanean izan duzun inplikazioa?

80%

5. Zer da zuretzat talde-lana?

Guztionean artean, eztabaidatuz eta komunean lan egitea.



IV. Irakaskuntza berrikuntza





6. Zure taldeak benetako talde-lana burutu al du?

Bai. Denen artean epin dugu guztia.

7. Eguneroko bizitzan garrantzitsuak diren gaiak landu dituzu irakasgai honetan?

Bai.

8. Ebaluaketa sistema gustatu al zaizu? Zergatik?

Bai, interesgarria eta eramangarria izan da.

9. Garrantzitsua iruditzen zaizu astero astero zure lanaren balorazio bat jasotzea irakaslearen aldetik? Zergatik?

Bai, kolon kobetu behar ditugun gawez kontrastu-ko gara eta ikasten joango gara.

10. Sistema honek, ikasteko orduan, autonomoago egin zaituela uste duzu? Zer ikasi duzu? Zer irabazi duzu?

Bai, ~~beste~~ zerbait ulertzen ez genuenean talde-
lanean laguntzarekin saiartzeko ginen zabalera
garbitzen.

IV. Irakaskuntza berrikuntza





Zuzenbide zibila I
Eragin Programa 2011
Leioa, 131 taldea

IRAKASGAIA LANTZEKO ETA EBALUATZEKO ERABILITAKO SISTEMARI BURUZKO BARNE-INKESTA

1. Metodo tradizionalarekin alderatuz, irakasgai honetan erabili den sistemaren abantailak azpimarra itzazu.

 - Taldeko nota onen icsues gero, bakanakiko nota ere onen izango da.
 - Talde lana eginez gero, gehiago ikasten da
 - Taldean eginez gero, estabandak notaren dira eta horiek aparte loten oharpena da taldearentzat.
2. Metodo tradizionalarekin alderatuz, irakasgai honetan erabili den sistemaren desabantailak azpimarra itzazu.

 - Metodoa talde lanarekin aldatzean da eta horiaki erakusten da, bakanakiko lanarekin aldatzean da.
 - Metodo honetik ere eragin dezake baten lehen gutxiago egiten bestetik lehen
 - Besterik ez dago beste lotenak aprobetxatzen ezin direnak
3. Zein izan da, 100etik, ehuneko portzentaia batez adierazia, irakasgai honetan izan duzun inplikazio orokorra?

75
4. Zein izan da, 100etik, ehuneko portzentaia batez adierazia, talde lanean izan duzun inplikazioa?

90
5. Zer da zuretzat talde-lana?

Talde - lana denetik aurrerantzean eta inplikazioa berbera jartzen da; hori apartes denera ontean egiten ere erakusten da.

IV. Irakaskuntza berrikuntza





6. Zure taldeak benetako talde-lana burutu al du?

Bai eta ez. Idazkengor unitateetan ~~te~~ niki definidutako talde lane egin garen, baina gero, banatzen heri garen. Handi notifikazioa eragin zuen.

7. Eguneroko bizitzan garrantzitsuak diren gaiak landu dituzu irakasgai honetan?

Bai

8. Ebaluaketa sistema gustatu al zaizu? Zergatik?

Bai, notz gain, talde lane sustatzen duelako eta horregina gero gehiago ikasten da.

9. Garrantzitsua Iruditzen zaizu astero astero zure lanaren balorazio bat jasotzea irakaslearen aldetik? Zergatik?

Bai, esfortza gehiago edo gutxiago egin duzun jekitako eta horrela puleki jertzea aztertu ari diren.

10. Sistema honek, ikasteko orduan, autonomoago egin zaituela uste duzu? Zer ikasi duzu? Zer irabazi duzu?

Bai, ~~te~~ gure kaskinagazera, talde lanean egiten nola antzertzea arduratzen zuela.





ERANSKIN V





14/25

ZUZENBIDE ZIBILA I
LEIOA, 131 TALDEA
GRADUA

AURRETEST

OHARRA: Galdetegi honen helburua irakasgaia jorratzen hasi baino lehen, ikasleok dakartzazuen aurreiritziak eta ezagupenak balioestea da. Taldearen abiapuntua zein den jakitea, hain zuzen ere. Anonimoa da eta ez du ebaluaziorik jasoko. Klasean bertan zuzenduko da eta emaitzak taldeak berehala ezagutuko ditu.

Hurrengo baieztapenak EGIA edo GEZURRA diren esan:

1. Zuzenbide zibilak Administrazioaren eta gizabanakoan arteko harreman juridikoak arautzen ditu, eta ez pertsonen artekoak.

GEZURRA

2. Zuzenbide zibila Erdi Aroan sortzen den diziplina da.

EGIA

3. Zuzenbide konstituzionala, beraz, Zuzenbide zibila da.

EGIA

4. Espainiako Estatuan bakarrik dago Zuzenbide zibil bat.

EGIA

5. Espainiar Zuzenbide zibil guzti hori lege testu bakar batean jasotzen da: KODE ZIBILA.

EGIA

6. Espainiako Kode zibila 1889. urtekoa da.

GEZURRA

7. Gaur egun indarrean dagoen Espainiako Konstituzioa, aldiz, 1976koa.

GEZURRA

8. Espainiar Estatuan bi motatako arau juridikoak daude: publikatuta daudenak eta publikatuta ez daudenak.

EGIA



IV. Irakaskuntza berrikuntza





~~9.~~ Arau juridiko batek ezin du, indarrean jartzen denetik, iraganeko egoera bat arautu.

EGIA

10. Legea arau juridiko mota bat da.

~~EGIA~~

11. Ohitura ere arau juridiko mota bat izan daiteke.

~~EGIA~~

~~12.~~ Transexualek kirurgia egin beharko dute euren sexu marka Erregistro Zibilean aldatu ahal izateko.

~~13.~~ Erregistro zibilean gizabanako bakoitzak dauzkan jabeztzak inskribatzen dira.

EGIA

~~14.~~ Zuzenbide zibilean, donbora neurtzean, jaiegunak baztertu egiten dira.

GEZURRA

~~15.~~ Adin nagusitasuna 18 urterekin eskuratu baino lehen, adin txikia emantzipatu daiteke, beti ere gurasoen baimenarekin.

EGIA

~~16.~~ Emantzipazioak adin nagusi batek duen gaitasun berdina izatea dakar.

GEZURRA

~~17.~~ Bere borondatearen kontra, norbait erietxe psikiatriko batean barneratzen bada, opaile batek erabaki beharko du barneratze hori bidezkoa den ala ez.

EGIA

~~18.~~ Aurreko baieztapena ez da egia. Zentroak berak hartzen du, familiarekin batera, erabaki hori.

GEZURRA

~~19.~~ BBVA pertsona fisiko bat da.

GEZURRA

IV. Irakaskuntza berrikuntza





20. Gorka Iraizoz, aldiz, pertsona juridikoa.

GEURRA

21. Espainiako Estatuan 14 urtetik aurrera ezkon zaitezke inoren baimenik gabe.

GEZURRA

22. Testamentua egiteko 18 urte izan behar dituzu.

EGIA

23. Zuzenbide zibilaren ikuspuntutik, amaren sabelean dagoen umekia ez da pertsona.

EGIA

24. Ume batek bi ama edo bi aita izan ditzake.

GEZURRA

25. Ume bat adoptatzeko 25 urte izan behar dituzu.

EGIA





Leire Imaz Zubiaur

IMAZ ZUBIAUR, Leire: *Zuzenbidea ikasten. Irakaskuntzarako aldizkaria*, 1. zb., 2014.1





Leioa, 2014ko urtarrila

